

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 2a

43 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—1999ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

1999ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko 1999ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1999ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburuak (3. or.).
- II. Norainokoa eta mugak (3. or.).
 - II.1. Norainokoa (3. or.).
 - II.2. Mugak (6. or.).

Lehen zatia: Ondorioak

- III. Ondorioak (7. or.).
 - III.1. Nafarroako toki sektore publikoaren egitura (7. or.).
 - III.2. Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den arau-multzoa (8. or.).
 - III.3. 500etik 1.000 biztanlera bitarteko toki entitateen ekonomia eta finantza kudeaketaren zenbait alderdiri buruzko txostena. (9. or.).
 - III.4. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera 1999an. (10. or.).
 - III.5. Eginiko fiskalizazio txostenetako iritzia- laburpena (16. or.).
 - III.6. Kontratazioa (17. or.).

Bigarren zatia: Lan berariazkoak

- IV. Nafarroako toki sektore publikoaren 1999ko egitura eta analisi orokorra (17. or.).
 - IV.1. Erakunde autonomoak (17. or.).
 - IV.2. Merkataritzako sozietateak (18. or.).
 - IV.3. Mankomunitateak. (18. or.).
- V. Aplikatzekoa den arau-multzoa (18. or.).
 - V.1. Berrikuntzak (18. or.).
 - V.2. Arau-haustekak eta eskasiak (19. or.).
- VI. 500etik 1.000 biztanlera bitarteko udalen kudeaketaren zenbait alderdiri buruzko txostena. (20. or.).
 - VI.1. Datu ekonomiko orokorrak eta iruzkinak (20. or.).
 - VI.2. Toki entitateen arazo orokor komunak (21. or.).
- VII. 1999ko finantzen egoera-orrien analisisia (25. or.).
 - VII.1. 1999ko aurrekontu-betetzea: udalak eta kontzejuak (25. or.).
 - VII.2. 1998ko aurrekontu-betetzea: mankomunitateak eta udalerrri-batasunak (28. or.).
 - VII.3. Toki Sektore Publikoaren zorpetzea 1999-XII-31n. (29. or.).

Hirugarren zatia: **fiskalizazio jarduketak** **laburbiltzeko oroit-idazkia**

- VIII. Fiskalizazio txostenak (32. or.).
 - VIII.1. 5.000 biztanle baino gutxiagoko entitateak (32. or.).
 - VIII.2. 5.000 biztanle baino gehiagoko entitateak (33. or.).

Eranskinak:

1. Udal eta kontzejuetako 1999ko aurrekontuaren likidazioa, populazio-tarteka (35. or.).
2. 500etik 1.000 biztanlera bitarteko toki entitateen zerrenda. (38. or.).
3. Toki Administrazioiko Departamentuari 1999ko urteko kontuak aurkeztu ez dizkieten toki-entitateen zerrenda (38.or.).
4. Txostenean erabilitako adierazleen definizioa (40. or.).

I. HELBURUAK

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako toki sektore publikoaren 1999ko ekitaldiari buruzko txostena egin da.

Txosten hau eginez, Kontuen Ganbarak honako helburu hauek lortu nahi ditu:

a) Nafarroako Parlamentuari, Administrazio Publikoari eta iritzi publikoari ikuspegi bat eskaintzea Nafarroako toki-entitateen egoera ekonomikoari eta antolaketari buruz eta horien jarduerak legezketasun printzipioarekiko agertzen duen egokitzapenari buruz, helburu horrekin Kontuen Ganbarak programaturiko lanen arabera.

b) Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (aurrerantzean, NTAFL) 350.2 artikulua betetzea. Artikulu horrek ezartzen du Kontuen Ganbarak toki esparruaren arloan eginiko jarduerak laburbiltzeko oroit-idazki bat urtero Parlamentura eta Nafarroako Gobernura bidali beharra.

c) Nafarroako toki entitateetan Kontuen Ganbararen presentzia eta jarduketa bermatzea, duen jarduketa-programari jarraituz.

d) Kasua denean, Nafarroako Parlamentuari eta Administrazio Publikoari proposatzea toki entitateen kudeaketa hobetzeko neurri orokor batzuk.

Kontuen Ganbara honek berriro ere azpimarratu nahi du txosten hau aurkeztu nahi izanen zuela aztergai duen aurrekontu-ekitalditik hurbilagoko garai batean; alabaina, toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorrak onetsi eta Gobernuari igortzeko Toki ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta, nabarmen atzeratzen da sektoreko aurrekontu-datuaren eskuartzea, eta horrek eragin zuzena du txostena ematen den egunaren gain.

II. NORAINOKOA ETA MUGAK**II.1. NORAINOKOA**

Txostena, aurkezteko moduari dagokionez, hiru zatitan egituratuta dago, lanaren norainokoa- ren adierazgarri. Horrela, ba, funtsean, honela dago definituta:

Lehen zatia: eginiko lanetatik eta jarduketan laburpenetik lorturiko ondorio eta eginiko gomen- dio garrantzitsuenak biltzen ditu.

Bigarren zatia: urteko txosten honetarako berariaz eginiko honako lan zehatz hauek ditu eduki nagusi:

- Toki sektore publikoaren egitura 1999an.
- Toki entitateei buruzko arau-multzoa.
- 500etik 1.000 biztanlera bitarteko Nafarroako toki entitateen ekonomia eta finantza kudeaketa- ren zenbait alderdiri buruzko txostena.
- Toki entitateen finantza-egoera 1999ko eki- taldian.

Hirugarren zatia, edo Kontuen Ganbarak –nagusiki 2000ko bere jarduketa-programari jarraikiz– Toki Sektore Publikoaren esparruan egi- niko jarduketak laburbiltzeko oroit-idazkia:

- Fiskalizazio-txostenak
- Kontratazio-espeditanteetan legea betetzen ote den aztertzeko berrikuspena, Kontuen Ganba- ran kontratuei buruz jaso diren laburpen-fitxen analisisan oinarriturikoa.

Bestalde, txostenak honako eranskin hauek dauka:

- Udal eta kontzejuetako 1999ko aurrekontu- likidazioa, populazio-tarteka (5.000 biztanle- tik beherakoak; 5.001etik 50.000 biztanlera artekoak eta 50.001etik gorakoak).
- 500etik 1.000 biztanlera bitarteko entitateen zerrenda.
- Toki Administrazioiko Departamentuari urteko kontuak aurkeztu ez dizkieten toki entitateen zerrenda.
- Txostenean erabilitako adierazleen defini- zioa.

Jarraian, aurrean aipatu ditugun alderdietako batzuk garatu eta zehaztuko ditugu.

II.1.1. 500etik 1.000 biztanlera bitarteko toki entitateen kudeaketaren zenbait alderdiri buruzko txostena.

Lan honen funtsa izan da 500etik 1.000 biztanlera bitarteko toki entitateetan (35 udal eta 4 kontzeju) «in situ» aztertzea kudeaketaren aldedi nagusiak, arlo hauek zehazki :

- alderdi orokorrak
- kontabilitatea eta aurrekontuak
- langileak.
- tributu dirusarreraren kudeaketa.
- diruzaintza.
- erakunde autonomoak.
- kontratazioa.
- hirigintza.
- ekonomia eta finantza adierazleak.
- Arduradunen iritziak haien kudeaketareb arazo nagusiei buruz.

II.1.2. Nafarroako toki entitateen finantza-egoera 1999-XII-31n

Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioiko Departamentuak emandako datuetan oinarrituz –zeinak 1999ko aurrekontu-betetzeari eta toki entitateek 1999ko abenduaren 31n duten zor biziari baitagozkio–, arlo honetako lanak honako hauek izan ditu aztergai:

- Nafarroako udal eta kontzejuen 1999ko aurrekontu-betetzearen analisia.
- Udalen mankomunitate eta batasunen 1999ko aurrekontu-betetzearen analisia.
- Toki sektore publikoaren aurrekontu-betetze funtzionalaren analisia.
- Toki entitateek 1999ko abenduaren 31n duten zor biziaren analisia.

II.1.3. Fiskalizazio txostenak

Kontuen Ganbararen 2000ko ekitaldirako urteko jarduketa-programari jarraituz, 22 entitate fiskalizatu dira (21 kasutan, 1999ko aurrekontu ekitaldiko likidazioak eta kasu batean 1998ko ekitaldiko likidazioa). Honako hauek dira fiskalizaturiko entitateak (zenbatekoak, milioitan, eta 5.000 biztanle-tik gorako eta beherako herriak bereiziz multzo banatan):

| | NPAOren zenbakia | Ekitaldia | Biztanleria 99-1-1eko errolda | Aitorturiko eskubideak | Aitorturiko betebeharrak |
|---|---------------------|-----------|----------------------------------|---------------------------|-----------------------------|
| Udalak < 5.000 biztanle | | | | | |
| Beriain | 86/00 | 1999 | 2.503 | 385 | 254 |
| Esa | 71/01 | 1999 | 239 | 66 | 51 |
| Noain (Elortzibar) | 47/01 | 1999 | 3.869 | 466 | 400 |
| Aezkoa Ibarreko Batzarre Nagusia eta udalak | | | | | |
| Abaurregaina | 41/01 | 1999 | 171 | 36 | 23 |
| Abaurrepea | 41/01 | 1999 | 47 | 7 | 7 |
| Aria | 41/01 | 1999 | 68 | 6 | 4 |
| Aribe | 41/01 | 1999 | 63 | 39 | 6 |
| Garaioa | 41/01 | 1999 | 134 | 85 | 51 |
| Garralda | 41/01 | 1999 | 213 | 94 | 70 |
| Orbaitzeta | 41/01 | 1999 | 240 | 31 | 28 |
| Orbara | 41/01 | 1999 | 59 | 26 | 5 |
| Hiriberri | 41/01 | 1999 | 154 | 12 | 14 |
| Guztira < 5.000 biztanle | | | 7.760 | 1.253 | 913 |
| Udalak > 5.000 biztanle | | | | | |
| Tafalla | 82/00 | 1999 | 10.214 | 1.602 | 1.157 |
| Lizarra | 82/00 | 1999 | 12.607 | 1.259 | 1.332 |

| | NPAoren zenbakia | Ekitaldia | Biztanleria 99-1-1eko errolda | Aitorturiko eskubideak | Aitorturiko betebeharrak |
|---|---------------------|-----------|----------------------------------|---------------------------|-----------------------------|
| Barañáin | 114/00 | 1999 | 20.541 | 1.390 | 1.245 |
| Berriozar | 7/01 | 1999 | 5.445 | 773 | 784 |
| Tutera | 22/01 | 1999 | 27.602 | 3.320 | 3.198 |
| Iruña | 33/01 | 1999 | 180.483 | 19.723 | 20.484 |
| San Adrián | 76/00 | 1998 | 5.392 | 862 | 768 |
| Atarrabia | 82/01 | 1999 | 9.142 | 958 | 893 |
| Burlata | 3/01 | 1999 | 16.647 | 1.426 | 1.470 |
| Guztira > 5.000 biztanle | | | 288.073 | 31.313 | 31.331 |
| Ohiko batasunak | | | | | |
| Aezkoako Batzarre Nagusia | 41/01 | 1999 | | 239 | 107 |
| Biztanleria, guztira eta fiskalizaturiko aurrekontuko zenbatekoa | | | 295.833 | 32.805 | 32.351 |

Aurreko entitate fiskalizatuen biztanleriak 295.833 biztanle egiten ditu (99-01-01ean), hau da, Foru Komunitateko guztizkoaren ehuneko 55 (538.009 biztanle, 1999ko urtarrilaren 1eko zentsuaren arabera). Udal, kontzeju, erakunde autonomo eta batasunei fiskalizaturiko gastuen aurrekontu betetzea toki sektore publikoaren 1998rako aurrekontu-betetze osoaren ehuneko 45,8 ingurukoa da –udal eta kontzejun kasuan populazioaren ehuneko 97 egiten duten entitateei buruzko datuetatik ateratako zenbatekoa–.

Halaber, azpimarratzekoa da ekitaldi honetan, bigarren aldiz jarraian, Nafarroan 10.000 biztanletik gorakoak diren udal guztiak fiskalizatu direla, Kontuen Ganbararen aurreikuspenei jarraituz, eta horrela jokatu delako datozen ekitaldietan ere.

5.000tik 10.000 biztanlera bitarteko udalei dagokienez, berriz, aurten hiru fiskalizatu dira.

Gainera, aurreko toki entitate fiskalizatuen menpeko erakunde autonomoak edo patronatuak ikuskatu dira (zenbatekoak, milioitan):

Ikuskaturiko erakunde autonomo edo patronatuen zerrenda
1999ko kontuen likidazioa

| Erakunde autonomoa/ Patronatua | Toki entitatea | Diru-sarreraren aurrekontu-betetzea | Gastuen aurrekontu-betetzea |
|-----------------------------------|----------------|--|--------------------------------|
| Musika | Barañáin | 113 | 105 |
| “Lagunak” Kirolak | Barañáin | 162 | 165 |
| Musika | Berriozar | | Udalaren kontuen barnean |
| Kirola eta Kultura | Berriozar | | Udalaren kontuen barnean |
| Musika | Burlata | 78 | 78 |
| Kultura eta Festak | Burlata | 54 | 58 |
| Kirola | Burlata | 161 | 158 |
| “Almudi” Kultur Zentroa | Lizarra | | Udalaren kontuen barnean |
| Gizarte Ongizatea | Lizarra | | Udalaren kontuen barnean |
| Kirolak | Lizarra | | Udalaren kontuen barnean |
| Musika | Lizarra | 37 | 29 |

| Erakunde autonomoa/ Patronatua | Toki entitatea | Diru-sarrereren aurrekontu-betetzea | Gastuen aurrekontu-betetzea |
|-----------------------------------|----------------|--|--------------------------------|
| “J. Gayarre” Musika Eskola | Noain | 39 | 37 |
| Kultura | Noain | 34 | 40 |
| Kirolak | Noain | 19 | 20 |
| Udal Eskolak | Iruña | 597 | 569 |
| Hirigintzako Kudeatzailletza | Iruña | 1.109 | 806 |
| San Adrián Irratia | San Adrián | Jarduerarik ez 1998an | |
| Musika | San Adrián | Udalaren kontuen barnean 98 | |
| Eskualdeko Kirol Elkarteak | Tafalla | 6 | 8 |
| Musika Eskola | Tafalla | 29 | 49 |
| Zaharretxea | Tafalla | Berrikusi gabeko kontuak | |
| Kultura | Tafalla | 6 | 39 |
| Kirolak | Tafalla | 32 | 59 |
| “Castell Ruiz” Kultur Zentroa | Tutera | 157 | 157 |
| Uren Batzordea | Tutera | 374 | 339 |
| Kirola | Atarrabia | 83 | 89 |
| Ikuskatutako aurrekontua, guztira | | 3.090 | 2.805 |

Hau da, 24 erakunde autonomo fiskalizatu dira, 2000ko urtarrilaren 1ean zeuden 74etatik ehuneko 32.

Kontuak bereizirik dituzten erakunde autonomo fiskalizatuen gastuen aurrekontu-betetzeak 2.805 milioi pezeta egiten du.

Aurreko txostenez gain, honako hauek ere egin dira:

- Aezkoa Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko txostena (2001eko 41. NPAO).
- Iruñerriko arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko txostena (2001eko 83. NPAO).

II.1.4. Kontratuen laburpen-fitxak, toki entitateek bidalitakoak

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 232. artikulua eta Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legeko 133.2 artikulua xedaturikoa betetzeko, Nafarroako toki entitateek 1999an zehar kontratazio-espedituei buruzko 12 komunikazio bidali zizkioten, guztira, Kontuen Ganbarari;

horien zenbatekoa bidalketa horretarako ezarritako legeko mugen barnean zegoen ⁽¹⁾.

II.2. MUGAK

Txosten hau egitean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- Nafarroako toki sektore publikoaren ikuspegi orokorra eskaintzeko helburuarentzat muga da Kontuen Ganbarak ahalmen materialik ez izatea toki sektore publiko hori osatzen duten entitate guztiak fiskalizatzeko.
- Indarreko araudiak ez du xedatzen ondare-kontabilitatea egitea nahitaezkoa denik. Beraz, egoera-balantzerik ez egoteak eta inbentarioak ez gaurkotzeak zaildu egiten dute toki entitateek 1999ko abenduaren 31n duten egoerari buruz iritzia emateko eginkizuna.
- 500etik 1.000 biztanlera bitarteko udalen kudeaketaren zenbait alderdiri buruzko txostena ez da osotua, informazioa falta delako Lekunberri eta Murillo el Frutoko udalei buruz eta Arre, Zizur Txikia eta Olazko kontzejuei buruz.

(1) 100 milioi pezeta, lehiaketa edo enkante bidez esleituriko zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratu eta obra-kontratuen kasuan; 50 milioi, negozio bidez esleituak badira, eta 25 milioi, aurrekoak ez diren beste administrazio-kontratuak badira.

Nafarroako toki sektore publikoaren 1999ko ekitaldiko aurrekontu-betetzeari eta egoera ekonomikoari buruz eskueran dagoen informazioa ez da osoa; funtsean, honako arrazoi hauengatik:

a) Udalerrietako 1999ko aurrekontu-betetzeari buruzko informazioa udalerrien ehuneko 91ri buruzkoa da –biztanleriaren ikuspegitik, Nafarroako guztiaren ehuneko 96,5 hartzen du. 3. eranskinean sartu da Toki Administrazioiko Departamentuari aurrekontu-betetzea aurkeztu ez dioten udalerrien zerrenda.

b) Mankomunitate eta batasunetako 1999ko aurrekontu-betetzeari buruzko informazioa entitateen ehuneko 48ri buruzkoa da. Departamentuari informaziorik ez bidaltzearen ondorioz, nabarmen distortsionatzen dira 1999ko datu orokorrak eta horiek aurreko ekitaldietakoekin konparatzea. 3. eranskinean zehazturik daude euren kontuak aurkeztu ez dituztenak.

c) Toki entitateen menpeko erakunde autonomoen eta patronatuen aurrekontu-betetzeari buruz eskueran dagoen informazioa oso aldakorra da urte batetik bestera. Informazio hori gehitu egiten zaio haren ardura duen udalarenari eta, beraz, ratioak eta ehunekoak zenbateteko.

d) Zor biziari buruzko datuak biztanleriaren ehuneko 97,8ri dagozkio.

e) Toki enpresa publikoei buruzko informaziorik ez dago eskueran, eta ez dago araurik horien

eta horien gaineko erantzukizuna duen toki entitatearen artean finantza-informazioaren bateratzea egiteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

LEHEN ZATIA ONDORIOAK


III. ONDORIOAK

Atal honetan bildu ditugu bai txosten orokor honetarako programaturiko lanetatik bai ekitaldiko oroit-idazkitik edo jarduera-laburpenetik lorturiko ondorio orokorrak. Helburu dugu Nafarroako toki sektore publikoaren 1999ko egoeraren ikuspegi orokor bat eskaintzea.

Ondorio eta gomendio hauek garaturik eta zehazturik daude txosten honetako kasuan kasuko ataletan.

III.1. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGITURA (txosteneko IV. atala)

1999ko abenduaren 31n, honelaxe osaturik dago Nafarroako toki sektore publikoa:



Hau da: toki esparruko entitateen kopurua 799 da guztira; horietatik, zentzu hertsiko toki enteak 706 dira; gainerakoa zerbitzu publikoak emateko entitate instrumentalek –erakunde autonomoek eta merkataritza-enpresek– eta partzuergoek osatzen dute.

1998ko datuekiko, toki sektore publikoa osatzen duten entitateen kopurua handitu egin da: hamalau erakunde autonomo, merkataritza-sozietate bat eta 3 mankomunitate gehiago.

Kontuen Ganbara honen iritziz –behin eta berriro adierazi izan duen bezala–, kontua edo arazoa ez da, berez, entitate-kopurua, baizik eta botere publikoek nahi duten Nafarroako Toki Administrazioaren eredu taxutzea ahalbidetuko duen udal-mapa oraindik ere definitu edo zehaztu gabe egotea. Eredu horrek bateragarri egin beharko ditu herritarren gaur egungo eskaerak eta kudeaketa publiko arrazionala.

Gure gomendioa da lehentasunez eta presaz aplika daitezela Nafarroako Toki Administrazioaren gaur egungo egoera arrazionalizatzeko beharrezkoak diren neurri exekutibo eta legegintzakoak. Ildo horretatik, toki esparruko itun bat onestea eta Toki Administrazioari Departamentuaren jarduna bitarteko egokiak izan daitezke Nafarroako administrazio publikoetako maila ezberdinen arteko eskumen-banaketa argitzeko, toki entitateei behar adinako finantza-ahalmena emateko eta beharizan horiei erantzunen dien mapa taxutzeko.

Neurri horiek hartzeak Nafarroako gizarte osoaren eta bertako botere publikoen -bai toki- bai foru esparrukoenen– partaidetza beharrezko du; horregatik, aipaturiko mapa horren definizioan adostasun handia lortzen saiatu behar da, herritarren borondatea eta euren interes zilegiak babes-tuz.

III.2. NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI APLIKATZEKO DEN ARAU-MULTZOA (V. atala)

Arau-multzoari dagozkion gertakari garrantzitsuen artean, azpimarratu behar da 1999an aurrekontu- eta kontabilitate-esparruari buruzko arau-multzo berriak eta horren instrukzioek hartzen dutela indarra, horrela Toki Ogasunei buruzko Foru Legean aurreikusitako toki entitateetako kontabilitate-eredua osatuz. Hark indar hartzeko nahitaezko unea 2000. urtea da, nahiz eta 1999an borondatez aplikatzekoa den.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere hainbat arau-hauste aurkitu ditugu zenbait arau emateko ezarritako epeei dagokienez, eta zenbait eskasia, Nafarroako

roako toki entitateei buruzko arau-multzoan. Horien artean, honako hauek ditugu aipagarri:

Toki Administrazioari buruzko Foru Legea (TAFL)

- Nafarroako udal-maparen arrazionalizazioa lortzeko aurreikusitako neurriak hartzea, hala nola udalerriek bat egitea, batasunak –nahitaezkoak eta/edo borondatezkoak–, administrazio barrutiak...

- Idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako postuak berregituratzea, eta ondoren kasuan kasuko hautaketa-lehiaketetarako dei egitea.

- Herri Ondarearen Erregistroa eta Herri Ondarearen Arbitraje Batzordeak eratzea.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legea (TOFL)

- Nafarroako Gobernuaren eta toki enteen lan-kidetza ekonomikoari buruzko proiektua, toki finantzaketa publikoaren eredu berriari egokitua.

Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Legea (APKFL)

- APKFLaren hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzea, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea Nafarroako toki entitateek kontratazioaren arloan dituzten berezitasunetara egokitzeko.

Gure gomendioa da botere publikoek osa ditzatela toki entitateei buruzko arau-multzoaren xedapenak, toki entitate horiek eskura izan ditzaten indarreko legediak ezartzen dituen lanabesak eta bitartekoak, eta, horrela, euren baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko aukera izan dezaten. Gai horretan, udal maparen taxuketa Nafarroako toki entitateen taxuketa anitzarekin –tamaina, bitartekoak eta giza baliabideak– bateragarri egiten jakin behar da, arauetako eskakizunak egokitzeko.

Bestalde, toki sektorea osatzen duten gainerako entitateei buruzko finantza-informazioa edukitzea komeni da, batez ere merkataritza-sozietatei buruzkoa; hori dela-eta, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeari jarraituz:

Toki enteen eta euren merkataritza-sozietate publikoen finantza-informazioaren aurkezteari eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak hartu behar dira, sozietate horiek eginiko jarduerari eta, ondorioz, toki sektore publiko guztiari buruzko ikuspegi osoa emateko.

III.3. 500ETIK 1.000 BIZTANLERA BITARTEKO TOKI ENTITATEEN EKONOMIA ETA FINANTZA KUDEAKETAREN ZENBAIT ALDERDIRI BURUZKO TXOSTENA.

Mugei buruzko II.2 epigrafean esan dugu, dagoeneko, 500etik 1.000 biztanlera bitarteko udal eta kontzejuetan egindako ikuskapen lanetan ez dela daturik ageri Lekunberri eta Murillo el Frutoko udalei buruz, ez eta Arre, Zizur Txikia eta Olazko kontzejuei buruz ere. Hortaz, datuak 33 udal eta kontzeju baten ingurukoak dira.

Egindako ikuskapenaren emaitzak ikusirik, 500etik 1.000 biztanlera bitarteko toki entitateen ekonomia, finantza eta kudeaketaren alderdi hauek nabarmendu ditugu:

- Aitorturiko eskubideek 3.790 milioi egiten dute, eta betetze maila ehuneko 78koa da; aitorturiko obligazioek, berriz, 3.301 milioi egiten dute eta horien betetze maila ehuneko 67koa da.

- Aurrezpen garbiak 644 milioi egiten ditu: dirusarreraren ehuneko 52 transferentzietatik heldu da eta tributu bidezko dirusarrerak dirusarreraren ehuneko 26 egiten dute.

- Langileria gastuek aurrekontuaren ehuneko 18 hartzen dute eta kapitulurik garrantzitsuena inbertsioena da, aitorturiko obligazioen ehuneko 46rekin.

Ondorio gisa esan behar da oro har, kontuan harturik 500etik 100^o biztanlera bitarteko udal eta kontzejuek baliabide eskasak dituztela, ekonomia eta finantza kudeaketa egokia dela, salbu eta gai hauetan:

- Atzerapenak gertatzen dira aurrekontuak onestean eta aldaketak gauzatzean. Horrek eragozten du aurrekontua kudeaketa tresna gisa erabiltzea. Azpimarratu behar da aldaketak ekitaldiaren amaieran egiteak dakarren ondorioa, alegia, gastuak egitea aurrekontuko mugak aintzat hartu gabe.

- Kasu batzuetan, kutzako printzipioari jarraiki kontabilizatzen da, ordainarazpenarenaren arabera egin beharrean.

- Lan kontratudunak kontratatzean legea ez da betetzen zenbait alditan (batzutan ez dago kontraturik edo hautapen prozedurak ez dira egokiak). Oro har, espediente pertsonalen mantentze lana ez da behar bezala egiten.

- Administrazio kontratazioan ere ez da beti betetzen legeak dioena (prozedura egokiari –maiz erabiltzen da zuzeneko adjudikazioa eta publikiziterik gabeko prozedura negoziatua–, exekuzio

epeei, prezioaren aldaketei eta abarri dagokienez).

Aurrekontuaren likidazioak islatzen duen ekonomia eta finantza egoera (kontuan harturik beste finantza egoerarik ez dela aztertu eta lanaren norainokoa ez dela auditoria batena izan, eta beraz ezinezkoa dela iritzirik ematea egoera horiei buruz), positiboa da, bi kasutan bakarrik izan ezik, diruzaintzako tentsioak baitaude.

Lanaren emaitzetan eta lana egin bitartean eskuratu ditugun ezagupenetan oinarriturik gomendio hauek proposatzen ditugu:

- *Aseguru polizak artxibatzeako sistema hobetzea, ordenaturik artxibatuz, kontratatu ez diren konpainiei eskatutako eskaintzak orraztuz, aseguru konpainia bakoitzak poliza bakoitzari igorritako gaurkotzeak erantsiz eta balio ez duten agiria baztertuz. Gomendioa da udal bakoitzean indarra duten polizen zerrendak, urte amaieran gaurkotuak, sortzea.*

- *Udal funtsen sailkapenerako sistema homologatu bat ezartzea, agiri funtsei egitura logikoa emateko eta artxiboan aurkitzen laguntzeko. Toki Administrazioko Departamentuak koaderno bat argitaratu du, Nafarroako udal eta kontzejuen artxiboetarako sailkapen taula bat erakusten duena, eta hori izan daiteke entitate mota horretarako gida.*

- *Aurrekontuak, aurrekontuen aldaketak eta aurrekontuaren likidazioak horretarako lege ezarritako epeetan onestea (eta aldaketen kasuan, gasturako baimena eman eta obligazioa aitortu baino lehen), aurrekontua kudeaketarako baliabide erabilgarria izan dadin.*

- *Ordainarazpenaren printzipioari jarraiki kontabilizatzea, zuhurtziaren printzipioaz baliatzea baztertu gabe, bereziki dirusarrerak kontabilizatzean, 1999tik aurrera nahitaezkoa bada ere, arau berriak direla medio.*

- *Lan kontratudunak aplikatzeko den legeriari jarraikiz kontratatzea, bai hautapen prozeduran bai kontratazioan bertan.*

- *Langileen espedienteen egoera hobetzea, gaurkoturik edukiz, garrantzizko dokumentazio erantsiz eta sobran dagoena kenduz.*

- *Idazkari kontuhartzaileei lan administratiboetan laguntzeko sistema ezarri edo hobetzea, Foru Komunitatearen ekimenen bitartez edo udal batzuk batera aritzea sustatuz.*

- *Aspalditik kobratzeko dauden saldoak garbitzea. Diruzaintzako gerakinaren kobratzen zailak diren saldoak kalkulatzeko, udalak ezarritako arra-*

zoizko irizpideen arabera edo 270/98 Foru Dekretuaren 97. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

- *Kontratazioa legezko arauetara jarraikiz egitea (Kontratuei buruzko Foru Legea), adjudikazio prozedura, exekuzio epeak, prezioa eta abar, betez. Kontratazio espedienteen edukia hobetzea, adjudikaziorako irizpideak, kontratazio mahaiaren kideak, beste lizitatzaile batzuetarako idazkiak eta abar erantsirik.*

- *Udal txikietako idazkari kontu-hartzaileei, administrari laguntzaileei eta kudeatzaileei ekonomia eta kontabilitatearen arloan prestakuntza emateko 1999an ezarri zen plana aurrera eramatea.*

- *Zenbait zerbitzu edo jarduera beste entitate batzuekin batera betetzea, 2001ean egin zen*

bezala, kontzejuen kontabilitatea udalen bitartez eramateko.

III.4. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA 1999AN (VII. ATALA).

Aztertutako informazioaren mugak kontuan izanik –II.2. atala–, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

III.4.1. Nafarroako toki sektore publikoa

Nafarroako toki sektore publikoak 1999an izan duen gastu bateratu gabea –ondoko taulan ikus daiteke–75.928 milioi pezetakoa da guztira –456,3 milioi euro–; hau da, Foru Komunitateak ekitaldi horretan, oinarritzko preziotan izan duen Balio Erantsi Gordinaren ehuneko 5,2. Sektoreak izan dituen diru-sarrerara bateratu gabeak 79.536 milioi pezetakoak dira –478 milioi euro–.

Nafarroako Toki Sektore Publikoa, 1999

| | Euroak, milakotan | PTA, milakotan | Ehunekoak |
|---|-------------------|-------------------|------------|
| ORGANIKOA: NORK GASTATZEN DUEN | | | |
| Udalak | 405.201 | 67.419.860 | 88,8 |
| Kontzejak | 14.072 | 2.341.457 | 3,1 |
| Mankomunitateak | 37.068 | 6.167.613 | 8,1 |
| GUZTIRA | 456.342 | 75.928.931 | 100 |
| EKONOMIKOA: A) NOLA GASTATZEN DEN | | | |
| I. Langileen gastuak | 128.580 | 21.393.971 | 28,2 |
| II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 102.694 | 17.086.822 | 22,5 |
| III. Finantza-gastuak | 5.201 | 865.416 | 1,1 |
| IV. Transferentzia arruntak | 29.561 | 4.918.593 | 6,5 |
| VI. Inbertsio errealak | 156.887 | 26.103.895 | 34,4 |
| VII. Kapital transferentziak | 11.888 | 1.978.056 | 2,6 |
| VIII. Finantza-aktiboak | 3.750 | 623.954 | 0,8 |
| IX. Finantza-pasiboak | 17.779 | 2.958.222 | 3,9 |
| EKONOMIKOA: B) ZERTAN GASTATZEN DEN | | | |
| I. Funtzionamendu gastuak | 260.835 | 43.399.386 | 57,2 |
| II. Inbertsioak | 156.887 | 26.103.895 | 34,7 |
| III. Eragiketa finantzarioak (kap. 3+8+9) | 26.730 | 4.447.592 | 5,9 |
| EKONOMIKOA: C) GASTUAK NOLA FINANTZIATZEN DIREN | | | |
| I. Zerga bidezko dirusarrerak (kap. 1+2+3) | 165.547 | 27.544.786 | 34,6 |
| II. Transferentziak eta bestelako kapital dirusar. (kap. 4+7) | 255.661 | 42.538.344 | 53,5 |
| III. Ondare dirusarrerak (kap. 5+6) | 38.006 | 6.323.741 | 8,0 |
| IV. Eragiketa finantzarioak (kap. 8+9) | 18.806 | 3.129.216 | 4,0 |
| GUZTIRA | 478.021 | 79.536.089 | 100 |

(518.701 biztanleri buruzko datuen gainean eginda, hain zuzen Nafarroako biztanleriaren ehuneko 96,5, 1999ko urtarrilaren 1ean, zentsu ofizialaren arabera: 538.009 biztanle).

Gastuaren erantzukizuna duenaren ikuspegitik –hau da, nork gastatzen duen–, ehuneko 88,8 udalek exekututzen dute, eta ehuneko 8,1 mankomunitateek; kontzejuek ozta-ozta egiten dute guztizkoaren ehuneko 3,1.

Gastuaren izaeraren ikuspegitik –hau da, zertan gastatzen den–, ikusi ahal izan dugu ehuneko 57,2 –43.399 milioi– funtzionamendu-gastuetarako erabiltzen dela –bereziki, langile eta erosketetarako–, ehuneko 34,4, inbertsio-eragiketarako –26.103 milioi inguru–, eta ehuneko 5,9, finantza-eragiketarako –4.447 milioi–. Nabarmendu beharra dago funtzionamendu gastuetarako ehuneko ia 4 puntu jaitsi dela (ehuneko 60,9 1998an eta ehuneko 57,2 1999an).

Aurreko gastu horiek finantzatu dira, ia osoki, kapital-transferentzietatik eta bestelako kapitaleko diru-sarreretatik lorturiko baliabideen bitartez –42.538 milioi– (ehuneko 53,5) eta sorburu berekietatik lorturikoen bitartez –hau da, tributuen eta ondarearen bidezko diru-sarrerekin: 33.868 milioi–. Kanpotik lorturiko finantzaketa-baliabideak

3.127 milioikoak izan dira. 1998ko ekitaldiaren aldean, transferentzietatik eta bestelako kapital dirusarreretatik heldu diren baliabideen bidezko finantzazioa handitu da, 1998an ehuneko 48,3 izatetik 1999an ehuneko 53,7 izatera.

Nafarroako toki sektore publikoak 1999rako izan dituen diru-sarrerak gastuak baino 3.607 milioi gehiagokoak dira. Zenbateko horretan ez dira kontuan hartu finantzaketa atxikia duten gastuetan izandako desbiderapenen ondoriozko doiketa balizkoak. Aurrekontuko “superabit” hori aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa da (7.527 milioi pezeta).

1998ko ekitaldian bezalaxe, ondoko taulan funtzioaren ikuspegitik sailkatuta aurkeztu da Nafarroako toki sektore publikoko aurrekontu-informazio bateratu gabea. Horrela, beste urrats bat eman du informazio horren kalitatearen hobekuntzak, eta, azken batean, horrek kontu publikoen gardentasun eta argitasun handiagoa erakarriko du.

Gastuen betetze-maila funtzionala.
Comparación 1998-1999 ordenado por peso de la función (pezetak, milakotan)

| Talde funtzionala | 1998ko aurrekontua | | 1999/1998ko aurrekontua | | Aldaketa, 98/99 | |
|---|--------------------|--------------------|-------------------------|--------------------|-----------------|------|
| | % | Betetakoa, guztira | % | Betetakoa, guztira | PTA. milakotan | % |
| Etxebizitza eta Hirigintza | 23,8 | 16.105.288 | 25,2 | 19.117.182 | 3.011.894 | 19 |
| Kultura eta Kirola | 15,3 | 10.356.734 | 14,1 | 10.729.522 | 372.787 | 4 |
| Segurtasun eta Babes soziala | 13,7 | 9.284.113 | 12,3 | 9.375.098 | 90.986 | 1 |
| Komunitatearen ongizatea | 6,7 | 4.529.004 | 10,9 | 8.241.744 | 3.712.740 | 82 |
| Entitatearen Administrazio Orokorra | 11,6 | 7.820.635 | 9,9 | 7.544.812 | -275.823 | -4 |
| Hezkuntza | 5,8 | 3.895.781 | 5,6 | 4.260.145 | 364.365 | 9 |
| Finantza eta Administrazio Karga | 6,0 | 4.036.256 | 5,0 | 3.820.881 | -215.374 | -5 |
| Segurtasun eta Babes Zibila | 4,9 | 3.316.304 | 4,9 | 3.728.458 | 412.154 | 12 |
| Gizarte Sustapena | 1,8 | 1.200.680 | 2,0 | 1.488.923 | 288.244 | 24 |
| Toki Entitateko administrazio-erakunde autonomo. | 1,5 | 1.032.802 | 1,5 | 1.144.701 | 111.898 | 11 |
| Araubide Ekonomikoa | 1,4 | 944.782 | 1,5 | 1.140.418 | 195.637 | 21 |
| Ekonomia Jarduerak | 1,9 | 1.300.156 | 1,1 | 819.391 | -480.765 | -37 |
| Osasuna | 1,2 | 816.638 | 1,0 | 780.264 | -36.374 | -4 |
| Gobernu Organoak | 0,6 | 439.313 | 0,8 | 631.877 | 192.564 | 44 |
| Ondasun eta Aprobetxamendu komunalak | 0,0 | 0 | 0,8 | 574.881 | 574.881 | |
| Nekazaritza eta Abeltzaintzako oinarritzako azpiegit. | 0,8 | 528.167 | 0,8 | 572.165 | 43.998 | 8 |
| Bestelako zerbitzu sozial eta komunitatekoak | 0,2 | 154.916 | 0,7 | 540.100 | 385.184 | 249 |
| Industriaren sektoreko oinarritzako azpiegitura | 0,2 | 113.500 | 0,7 | 523.981 | 410.482 | 362 |
| Industria | 0,5 | 327.668 | 0,3 | 231.925 | -95.743 | -29 |
| Oinarritzako Azpiegiturak eta Garraioak | 1,8 | 1.194.379 | 0,2 | 178.761 | -1.015.619 | -85 |
| Besteko toki ente batzuetarako transferentziak | 0,0 | 19.425 | 0,2 | 146.398 | 126.973 | 654 |
| Turismoa | 0,1 | 51.538 | 0,2 | 138.207 | 86.670 | 168 |
| Sektorearteko ekintzak | 0,0 | 5.181 | 0,1 | 60.241 | 55.061 | 1063 |
| Merkataritza-araubidea | 0,1 | 35.756 | 0,0 | 36.892 | 1.136 | 3 |

| | | | | | | |
|---|-----|------------|-----|------------|-----------|------|
| Komunikazioak | 0,0 | 3.581 | 0,0 | 29.217 | 25.635 | 716 |
| Energia | 0,0 | 16.535 | 0,0 | 21.830 | 5.295 | 32 |
| Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza | 0,2 | 151.903 | 0,0 | 21.251 | -130.652 | -86 |
| Oinarrizko informazioa eta estatistikoa | 0,0 | 18.136 | 0,0 | 19.322 | 1.185 | 7 |
| Merkataritza eta bestelako zerbitzuak | 0,0 | 100 | 0,0 | 7.980 | 7.880 | 7880 |
| Zerbitzuen sektoreko oinarrizko azpiegitura | 0,0 | 3.825 | 0,0 | 1.799 | -2.026 | -53 |
| Toki entitateko administrazio orokorrari | 0,0 | 0 | 0,0 | 563 | 563 | |
| Guztira | 100 | 67.703.095 | 100 | 75.928.931 | 8.225.836 | 12,1 |

1998ko datuak: Nafarroako udaletako biztanleriaren ehuneko 97,8.

1999ko datuak: Nafarroako udaletako biztanleriaren ehuneko 96,4.

Taula horretatik, funtzio garrantzitsuenen artean honako hauek azpimarratzekoak dira:

1999ko funtzio nagusiak

| | Ehunekoa | Zenbatekoa (pezetak, milakotan) |
|--|----------|------------------------------------|
| 43 Etxebizitza eta Hirigintza | 25,2 | 19.117.182 |
| 45 Kultura eta Kirola | 14,1 | 10.729.522 |
| 31 Segurtasun eta Babes soziala | 12,3 | 9.375.098 |
| 44 Komunitatearen ongizatea | 10,9 | 8.241.744 |
| 12 Entitatearen Administrazio Orokorra | 9,9 | 7.544.812 |
| 42 Hezkuntza | 5,6 | 4.260.145 |
| 01 Finantza administrazio eta karga | 5,0 | 3.820.881 |
| Gainerako funtzioak | 16,9 | 12.839.546 |

III.4.2. Udalerrriak eta kontzejuak

1999ko ekitaldian, udal eta kontzejuen aurrekontuaren likidazioak honakoa

Dirusarreraren betetze maila (pezetak, milakotan)

| Kapitulua | Aitorturiko eskubideak | Egitura ehunekoa | Kobratua | Kobrantzen ehunekoa | Kobratzeke |
|--|------------------------|------------------|------------|---------------------|------------|
| Zuzeneko zergak | 13.636.743 | 19 | 11.896.190 | 87 | 1.740.553 |
| Zeharkako zergak | 3.782.425 | 5 | 3.279.901 | 87 | 502.524 |
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 8.161.929 | 11 | 7.342.432 | 90 | 819.497 |
| Transferentzia arruntak | 25.128.193 | 34 | 24.036.375 | 96 | 1.091.818 |
| Ondare dirusarrerak | 3.938.851 | 5 | 3.254.849 | 83 | 684.002 |
| Inbertsio errealen besterentzea | 2.135.625 | 3 | 1.808.050 | 85 | 327.575 |
| Kapital transf. eta best. kapital dirusar. | 13.658.812 | 19 | 9.764.046 | 71 | 3.894.765 |
| Finantza-aktiboaren aldaketa | 394.353 | 1 | 334.601 | 85 | 59.752 |
| Finantza-pasiboaren aldaketa | 2.316.876 | 3 | 2.181.281 | 94 | 135.595 |
| Dirusarrerak, guztira | 73.153.807 | 100 | 63.897.725 | 87,3 | 9.256.081 |

Gastuen betetze maila (pezetak, milakotan)

| Kapitulua | Aitorturiko betebeharrak | Egitura ehunekoak | Ordaindua | Ordainketen ehunekoak | Ordaintzeke |
|------------------------------------|--------------------------|-------------------|------------|-----------------------|-------------|
| Langileen ordainsariak | 20.604.987 | 30 | 20.409.508 | 99 | 195.479 |
| Zerb. eta ondasun arruntak erostea | 15.830.444 | 23 | 13.600.485 | 86 | 2.229.959 |
| Interesak | 839.543 | 1 | 779.735 | 93 | 59.808 |
| Transferentzia arruntak | 4.220.206 | 6 | 3.613.128 | 86 | 607.078 |
| Inbertsio errealak | 24.002.979 | 34 | 19.561.071 | 81 | 4.441.908 |
| Kapital transferentziak | 1.081.250 | 2 | 707.205 | 65 | 374.046 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 305.505 | 0 | 301.505 | 99 | 4.000 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 2.876.403 | 4 | 2.802.385 | 97 | 74.018 |
| Gastuak, guztira | 69.761.317 | 100 | 61.775.022 | 88,6 | 7.986.296 |

Hauexek dira datu azpimagarrienak

- Aitorturiko eskubideak 73.153 milioi pezeta-koak dira; aitorturiko obligazioak, ordea, 69.761 milioikoak. Beraz, ekitaldiko aurrekontu-saldo orokorra, finantzaketa atxikia daukaten gastuekin doitu gabea, 3.392 milioikoa da. Superabit hori 1998an lorturikoa (7.402 milioi) baino ehuneko 55 txikiagoa da; funtsean, gastuak diru-sarrerak baino proportzio handiagoan gehitu direlako –ehuneko 11,6 eta ehuneko 4,6–.

- Biztanle bakoitzeko gastu arruntak 79.998 pezetakoak dira; hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 4 gehiagokoak (76.927 pezeta). Inbertsio-indizeak gorakada handia izan du, ia bost puntukoa eta ehuneko 36koa izatera iritsi da, 1999ko ehuneko 31,4ren aldean; hau da, gastaturiko 100 pezeta bakoitzeko, 36 pezeta inbertsioetarako erabili dira.

Langileria-gastuek gastuen ehuneko 29,5 hartzen dute, baina jaitsi egin dira aurreko ekitaldian alderaturik (ehuneko 32,2)

1999an, udalerriek aitorturiko dirusarreretako 100 pezeta bakoitzeko, honela banatzen zen jatorria:

| Dirusarreraren jatorria | 1998 | 1999 |
|--|------|------|
| Transferentziak (dirulaguntzak) | 43 | 48 |
| Tributu bidezkoak (kapitulua 1, 2 eta 3) | 34 | 35 |
| Ondare bidezkoak (kapitulua 5 y 6) | 12 | 8 |
| Finantzarioak (kapitulua 9) | 6 | 4 |
| Hirigintza eta kontribuzio bereziak | 5 | 5 |

Nabarmendu daiteke transferentzia-dirulaguntzen menpekotasuna handitu dela (hirigintzako dirusarrerak kenduta). Aitzitik, ondareko gastuak eta mailegu berriak kontratatzetik heldu diren dirusarrerak jaitsi egin dira.

- Aurreko urteetako joera etenik, biztanle bakoitzeko finantza-karga pittin bat handitu da, ehuneko 6, 1998koarekin konparatuz (6.747 pezeta biztanleko), eta biztanle bakoitzeko 7164 pezeta ingurukoa da, aurreko urteetan itunduriko maileguak itzultzeko aldiari sartzen direlako, itunduriko mailegu berrien kopurua jaitsi bada ere.

- Finantza egoera orokorra hobea dela erakusteko, zorpetze-maila ehuneko 6,8koa da, 1998ko bertsua, (ehuneko 6,9); zorpetze-muga (ehuneko 25,9), hobea da 1998koaren (23,1) aldean eta beraz, zorpetze-ahalmena edo aurrezpen garbia ehuneko 18,8koa da; hau da, 1998koa baino 2,8 puntu handiagoa.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak edo zerga presioa 49.318 pezetakoak dira, (1998koak baino 3.075 pezeta handiagoak).

III.4.3. Mankomunitateak eta udalerrien batasunak

1999ko ekitaldian, mankomunitateen eta udalerrien batasunen aurrekontu-likidazioa hauxe da:

Dirusarrerren betetze maila (pezetak, milakotan)

| Kapitulua | Aitorturiko eskubideak | Egitura ehunekoa | Kobratua | Kobrانتzen ehunekoa | Kobra-tzeke |
|----------------------------------|------------------------|------------------|-----------|---------------------|-------------|
| Zuzeneko zergak | 0 | 0 | 0 | - | 0 |
| Zeharkako zergak | 0 | 0 | 0 | - | 0 |
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 1.963.690 | 31 | 1.691.450 | 86 | 272.239 |
| Transferentzia arruntak | 1.372.248 | 22 | 1.246.359 | 91 | 125.889 |
| Ondare dirusarrerak | 179.471 | 3 | 123.847 | 69 | 55.623 |
| Inbertsio errealen besterentzea | 69.795 | 1 | 69.795 | 100 | 0 |
| Kapital transferentziak | 2.379.092 | 37 | 2.294.902 | 96 | 84.190 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 305.991 | 5 | 300.251 | 98 | 5.741 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 111.996 | 2 | 97.680 | 87 | 14.316 |
| Dirusarrerak, guztira | 6.382.283 | 100 | 5.824.285 | 91 | 557.998 |

Gastuen betetze maila (pezetak, milakotan)

| Kapitulua | Aitorturiko betebeharrak | Egitura ehunekoa | Ordaindua | Ordainketen ehunekoa | Ordain-tzeke |
|------------------------------------|--------------------------|------------------|-----------|----------------------|--------------|
| Langileen ordainsariak | 788.985 | 13 | 771.722 | 98 | 17.263 |
| Zerb. eta ondasun arruntak erostea | 1.256.378 | 20 | 1.075.247 | 86 | 181.131 |
| Interesak | 25.873 | 0 | 25.873 | 100 | 0 |
| Transferentzia arruntak | 698.387 | 11 | 511.813 | 73 | 186.575 |
| Inbertsio errealak | 2.100.916 | 34 | 1.651.312 | 79 | 449.603 |
| Kapital transferentziak | 896.806 | 15 | 874.546 | 98 | 22.261 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 318.449 | 5 | 318.449 | 100 | 0 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 81.819 | 1 | 79.935 | 98 | 1.884 |
| Gastuak, guztira | 6.167.614 | 100 | 5.308.898 | 86 | 858.716 |

Datu aipagarrienak hauexek dira:

- Informazio basea 35 entitateri buruzkoa da. Aitorturiko eskubideak 6.382 milioioak dira, eta obligazioak, aldiz, 6.167 milioioak; horrela, bada, 215 milioiko aurrekontu-saldo positiboa dago, kontuan izan gabe finantzaketa atxikia daukaten gastuen ondorioz magnitude horretan egin beharreko doiketak. 35 entitate horiek, handienak izanik ere, dauden ehuneko 50 inguru dira.

- Gastuen esparruan, azpimarratzekoak dira transferentzien ondoriozkoak –ehuneko 26– eta inbertsioenak –ehuneko 34–. Halaber, deigarri gertatzen da langileen kapituluaren garrantzi nahiko apala: gastuaren guztizkoaren ehuneko 13,

kudeaketa kudeaketa sozietateek eraman ohi dutelako.

- Diru-sarrerei dagokienez, kontzepturik nagusiak hauexek dira: tasak eta bestelako dirusarrerak –ehuneko 31– eta transferentziak –guztizkoaren ehuneko 59–.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerek 2.759 pezeta egiten dute.

- Zorpetze-maila ehuneko 3,1ekoa da –1998an, ehuneko 3,8koa– eta muga, berriz, ehuneko 22,7koa –1998an, ehuneko 20,7koa–. Beraz, ehuneko 18,9ko zorpetze-ahalmena daukate –1998an, ehuneko 16,9koa–.

III.4.4. Zor bizia 1999ko abenduaren 31n

Toki entitateen zor bizia 25.535 milioi pezetakoa da 1999ko abenduaren 31n ⁽²⁾; horrek esan nahi du per capita zorra 46.038 pezetakoa dela udalerrietan, eta 35.959 pezetakoa kontzejuetan.

Banaketa ondorengo hau da (pezetak, milioitan):

| 1999ko zorra | Biztanleak | Biztanleen % 99-1-1ko eroldaren arabera | Nafarroako Gobernuaren zorra | Finantza- entitateen zorra | Zorra, guztira | Per capita zorra (pezetatan) |
|-----------------|------------|--|------------------------------------|----------------------------------|-------------------|------------------------------------|
| Udalak | 523.281 | 97 | 4.600 | 19.490 | 24.090 | 46.038 |
| Kontzejuak | 19.101 | 40 | 132 | 554 | 686 | 35.959 |
| Mankomunitateak | - | | 1 | 758 | 759 | - |
| Guztira | - | | 4.733 | 20.802 | 25.535 | - |

Informazio horretatik abiatuz, eta aurreko ekitaldikoarekin homogeneizatuz (zorraren bilakaerari buruzko datu alderagarriak lortzeko datuak bi urteetan aurkeztu dituzten udalei dagokienez), ondorio hauetara iritsi gara:

- Zorraren guztizkoa ehuneko 8 jaitsi da, 1998. urtearekin alderatuta. Udalen zorrak ehuneko 6 jaitsi da eta kontzejuena ehuneko 8 inguru.

- Mailegu-hartzaileari dagokionez, zorraren guztizkoaren ehuneko 18,5 Nafarroako Gobernuaren aldekoa da; ehuneko hori 1998koa (ehuneko 21) baino txikixeagoa da.

- Udal eta kontzejuen zorraren banaketa geografikoaren ikuspegitik, hauexek azpimarratuko ditugu:

a) Zorraren ehuneko 66 Iruñerrian –ehuneko 44– eta Hego Erriberan –ehuneko 22– bildurik dago. Bi eskualde horiek azterketan sarturiko biztanle guztien ehuneko 69 hartzen dute.

b) 1998koarekiko, Kantauriaurreko ibarrek –ehuneko 24–, ekialdeko erdialdeak –ehuneko 23– eta Pirinioko ibarrek –ehuneko 20– izan dute gorakadarik handiena. Beste muturrean, ordea, Goi Erriberan –ehuneko 16– eta Kantauriko ibarrek –ehuneko 14– izan dute beherakadarik handiena.

c) Pirinio aurreko ibarrek eta Hego Erriberak dute biztanle bakoitzeko zorrarik handiena, 70.000 pezetatik gorakoa. Pirinioko ibarretan eta

Estellerrian, berriz, ez dituzte 33.000 pezeta gainditzen biztanle bakoitzeko.

- Udal eta kontzejuetako zorra biztanleria-tartetan banatzeari dagokionez, hauxe adieraziko dugu:

a) Tarte guztietan jaitsi da zorra. 5.000tik beherako entitateetan zorra ia ehuneko bi jaitsi da. 5.000 eta 50.000 biztanle bitarteko entitateen zorra ehuneko 2,5 jaitsi da, eta 50.000 biztanletik gorakoetan ia ehuneko 14 jaitsi da.

b) 5.000tik 50.000 biztanlera bitarteko zatiak per capita zor biziaren baliorik handiena agertzen du: 49.865 pezeta biztanleko.

Laburbilduz, eta amaierako hausnarketa gisa, 1999an eutsi egin zaio azken urteotan Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoeran nabarituriko hobetze-joerari. Funtsean, iritzi horretarako arrazoiak hauexek dira: aurrekontu-superabit nabarmenak izatea (3.607 milioi pezetakoa, aurreko urtekoaren –7.527 milioi- ia erdia bada ere), eta finantza adierazle batzuen hobekuntza, hala nola, zorpetze muga handitzea, finantza-karga handitu bada ere, eta zorpetze-mailari eutsi izana.

Aurreko urteko txostenean bezala, ekitaldiko finantzen egoera-orriak ez bidaltzeak ekitaldi honetan –batez ere erakunde autonomo, mankomunitate eta batasunei dagokienez– duen eraginari buruzko ohartarazpena egin nahi genuke, azkenean aurrekontu aldetik garrantzia handiena duten entitateen datuak eskuratu baditu ere.

(2) Biztanleriaren ehuneko 97,2 biltzen duten 242 udal, 232 kontzeju eta 36 mankomunitatek zorrari buruz bidalitako datuen arabera.

Azkenik, Nafarroako toki sektore publikoari buruzko finantza-informazioa ahalik zehatzena eta osoena izan dadin, toki entitateen eta euren enpresa publikoen kontuak bateratzea lortzeko urratsei ekin behar zaie.

III.5. EGINIKO FISKALIZAZIO TXOSTENETA-KO IRITZIAREN LABURPENA

Aurten, 5.000tik beherako 13 toki entitateri eta 5.000tik gorako 9 toki entitateri buruz eginiko txostenetako iritzia, honela laburbil daiteke:

III.5.1. 1999ko ekitaldiaren garapena eta betetzea

Oro har, 1999ko aurrekontuaren betetze-egoerari buruzko orriek nahiko ongi agertzen dute fiskalizaturiko toki entitateek eginiko eragiketa-multzoa; dena den, hiru entitate txikiren kasuan eta beste hiru entitate handiren kasuan ere salbuespenak daude, eragiketen mozketak edo aurrekontu atxikipenak desegokiak izateagatik.

III.5.2. 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena

Aurreko ekitaldiarekin alderaturik, egoera hobetu egin dela ikusten da.

- 5.000 biznaletik beherako entitateetan, ondareko kontabilitatea nahitaezkoa ez bada ere, iritzia aldekoa da bi kasutan, salbuespenekin.

- 5.000 biztanletik gorako entitateetan, egoera-balantzeak nahiko ongi aurkezten du ondare egoera fiskalizaturiko bederatzi entitateetarik zortzitan, baina kasu guztietan inbentarioa-ibilgetuarena salbuespena da.

III.5.3. Legezketasuna

Fiskalizaturiko toki entitateen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz egin da. Dena den, kontabilitate eta aurrekontuen, kontratazioaren eta langileriaren gaineko araudia hainbat kasutan ez dela bete antzeman da.

III.5.4. 1999ko abenduaren 31ko finantza-egoera

Oro har, finantza-egoera onargarria dela antzematen da: zorpetze-mailak mugen azpitik daude –udalerririk batzuetan, gainera, ez dago ia zorpetzerik–, eta diruzaintzako gerakinak eta aurrezpen-ehuneko garbiak positiboak dira.

Aurreko baieztapen horren salbuespen baka-rrak entitate batzuetan dauden hainbat likidez-iarazo dira, inbertsioen alorrean eginiko finantza-keta-politikaren ondoriozkoak.

Guztia kontuan harturik, aurreko ekitaldian izan diren balioekin alderatuz, aztertutako entitate-etako adierazle ekonomikoek hoberanzko bilakae-ra izan dutela ikusten da.

III.5.5. Erakunde autonomoak

Oro har, fiskalizaturiko erakunde autonomo edo patronatuen aurrekontu-likidazioek 1999an haiek egindako jarduera agertzen dute.

Alabaina, kontu-hartzailtza publikoaren, aurrekontugintzaren, langileen kudeaketaren eta administrazio-kontratazioaren arloetan, indarra duen legediaren ez-betetze deigarriak antzeman ahal izan dira.

Beste kasu batzuetan, horien kudeaketa administrazioak, zeinek bere udalarekiko, autonomia-erik egiazki ez duela antzeman ahal izan da, eta hori kontraesanean dago erakunde autonomoaren legezko definizioarekin berarekin.

Azkenik, puntu garrantzitsu gisa, adierazi behar da ekitaldi honetan ere bete dela Kontuen Ganbararen fiskalizazio-jarduera 10.000 biztanle baino gehiagoko udal guztietan. Erakunde honen nahia da jarduera horri urtero eustea.

Amaierako laburpen gisa, Kontuen Ganbarak bilakaera positiboa antzeman du toki entitateen finantza-fiskalizazioen emaitzetan, eta egoera ekonomiko onargarria aurkitu du.

Dena den, Udalek ahalegin osagarria egin behar dute giltzarri diren honako arlo edo puntu hauetan euren kudeaketa hobetzeko:

- *Kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipioak zorrotzasunez aplikatzea.*

- *Inbentarioak gaurkotzea, arautzea eta horiek etengabe gaurkoturik daudela bermatzeko prozedurak taxutzea.*

- *Administrazio-kontratazioaren arloan indarra duen araudia betetzea; bereziki, eginiko jarduerak frogatzeari eta inbertsioen exekuzio-epenei kontrolari dagokienez.*

- *Euren erakunde autonomoek eginiko jardueren gaineko kontrol, kontu-hartzailtza eta zaintzarako mekanismo eraginkorrak taxutu eta ezartzea.*

- *Gardentasun-printzipioa neurri handiagoan betetzeko, gutxienez ere biztanle gehien dauzkaten udalek urtero prestatu behar dute kontabilitate-plan publikoan jasotako oroit-idazkia, urteko euren kontuen funtsezko zati gisa.*

III.6. KONTRATAZIOA (VIII eta IX. atalak)

Kontratazio publikoa aztertu dugu, fiskalizazio lanetan eta kontratuei buruz udalek igorritako laburpen-fitxetan oinarrituz eta egungo araudiari jarraituz (hau da, obra-kontratuak eta zerbitzudeaketako kontratuak, hasierako zenbatekoa 100 milioikoa daukatenak –lehiaketa edo enkante bidez esleituak badira–, edo 50 milioikoa, zuzenean esleitzen badira, edo 25 milioikoa aurrekoak ez diren administrazio-kontratuen kasuan).

III.6.1. Fiskalizazio txostenak

Eginiko fiskalizazio lanetatik ondorioztatzen da kontratazio-araudia hainbat puntutan ez dela bete; puntu horiek toki entitate txikiak nahiz handiak ukitzen dituzte. Aipagarrienak hauek dira:

- Akatsak kontratazio-espeditenteak osatzean.
- Lehiaketa eta publizitate printzipioen aplikazioari justifikatuak ez diren murrizketak.
- Kontu-hartzaitzako eta aholkularitza juridikoko txostenik eza. Horrez gain, txosten teknikoetan ez da beti agertzen harturiko erabakiari buruzko behar adina informazio.
- Inbertsioen exekuzio-epeen gaineko kontrol akastuna.
- Obrei ez zaie aurrekontu eta kontabilitate izarako behar adinako jarraipenik egin; bereziki, urte anitzerako obren kasuan.

III.6.2. Kontratazioari buruzko laburpen-fitxak

1999ko ekitaldian Nafarroako toki entitateek Kontuen Ganbarari guztira 12 fitxa bidali dizkiete; aurreko ekitaldian bidalitakoen aldera nabarmen jaitsi da kopurua, 21 izan baitziren orduan.

Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Bi kasutan ez dago kontratazio proposamenik.
- Lau kasutan ez dago kreditua izatearen agiriarik.
- Bi kasutan falta da kontu-hartzearen agiria.
- Bi kasutan falta da txosten juridikoa.

**BIGARREN ZATIA
LAN BERARIAZKOAK****IV. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGITURA ETA ANALISI OROKORRA**

Jarraian, Nafarroako toki sektore publikoak 1997, 1998 eta 1999ko abenduaren 31n duen egitura azalduko dugu:

| Entitatea | 1997 | 1998 | 1999 |
|--|------------|------------|------------|
| Udalerrria | 272 | 272 | 272 |
| Kontzejuak | 366 | 366 | 366 |
| Mankomunitateak | 56 | 56 | 59 |
| Udal batasunak | 9 | 9 | 9 |
| Partzuergoak | 8 | 8 | 8 |
| Erakunde autonomoak | 58 | 60 | 74 |
| Udalen merkataritza-sozietateak | 4 | 5 | 6 |
| Mankomunitateen merkataritza-sozietateak | 5 | 5 | 5 |
| Guztira | 778 | 781 | 799 |

Aurreko ekitaldiko egoera ia bera mantentzen da. Salbuespena erakunde autonomoena eta merkataritza-sozietateena da, haiek izan duten hazkuntza orokorra 15 entitatetakoa izan baita (14 erakunde autonomo eta merkataritza sozietate 1).

IV.I. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Horrela, bada, 1999an, 74 erakunde autonomo daude, aurreko urtean baino 14 gehiago, 15 berri sartu eta baja bat gertatu ondoren; horietatik, 72 daude udalei atxikiak eta 2, mankomunitateei.

Hauexek dira berriak:

| Erakunde autonomoak | Udala |
|--|-----------------|
| Aita Barandiaran zaharrentzako egoitza | Alsatsu |
| Musika eskola | Etzarri-Aranatz |
| Kirol eta kultura patronatua | Erro |
| Kirol patronatua | Uharte |
| Central Eléctrica Municipal | Izaba |
| Musika patronatua | Marcilla |
| Virgen del Castillo egoitza | Miranda de Arga |
| Kirol patronatua | Erriberri |
| Musika eskola | Azkoien |
| Kirol udal kontseilua | Ribaforada |
| Musika eskola | Ribaforada |
| Kirol udal kontseilua | Erromantzatua |
| Zaharrentzako egoitza | Zangoza |
| Ura eta Argia | Zangoza |
| Musika eskolaren patronatua | Villafranca |

Baja Melidako kirol patronatuarena da.

IV.2. MERKATARITZA SOZIJETATEAK

Merkataritza-sozietatei dagokienez, multzoan sartu den berria Electra Orbaiceta, S.L. da (ehuneko ehun), Orbaicetako Udalarena. 1999an dau den hamaiketarik, 6 udalei atxikirik daude eta 5 mankomunitatei.

IV.3. MANKOMUNITATEAK

Mankomunitateak 59 dira, aurreko urtekoak baino 3 gehiago, mankomunitate hauek gehitu baitzaizkio zentsuari, jardunik ez izan arren:

| | |
|--------------------------|-----------------------------------|
| Langileen mankomunitatea | Aberin-Arellano-Morentingo udalak |
| Langileen mankomunitatea | Zirauki eta Mañeruko udalak |
| Langileen mankomunitatea | Ezkabarte-Olaibarko udalak |

Kontuen Ganbarak behin eta berriro azpimarratu duenez, toki sektore publikoa osatzen joan da alde aurretik taxutu edo zehaztu gabe Nafarroan zer udal mapa lortu nahi den, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko filosofiaren eta aurreikuspenen arabera.

Mapa hori taxutu gabe egotearen ondorioz, Nafarroako eskualde bakoitzean, zein bere aldetik eta zerbitzu-ematea hobetzeko helburuz –gutxienez, teorikoki–, udalak erakunde autonomoak sortzen ari dira –oro har, halakoen izana baino izena besterik ez ohi dute–, edo beste entitate batzuekin elkartzan ari dira toki entitate independente bat

osatzeko, zeinak merkataritza sozietateak eta/edo erakundeak baititu.

Aurrekoak toki esparrukoa edo, asko jota, partzialki eskualde-esparrukoa den ikuspegia daukaten erakundeen egitura bat sortarazi du, baina, plangintza eta garapen harmoniatsuari dagokionez, Foru Komunitateko lurraldea ez da osotasun gisa hartzen.

Era berean, gogoratu daiteke hemendik gutxira izanen dituela ondorioak Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legeak aurreikusirik toki entitateen erregistroak, urriaren 25eko 288/90 Foru Dekretuak sortu eta ekainaren 24ko 248/91 Foru Aginduak garatutako horrek.

V. NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK 1999AN ARAUTZEN DITUEN ARAU-MULTZOA

Nafarroako Foru Komunitateak arau-sistema berekia dauka toki administrazioaren arloan, bere eskubide historikoen ondorioz, zeinak Konstituzioak babesten baititu. Zehazki, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeko Lege Organiko-ko 46. artikuluan arautzen da hori.

V.1. ARAU-MULTZOKO BERRIKUNTZAK

Aurreko txostenean esan genuen 1998an zenbait foru dekretu eman zirela, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean taxuturiko aurrekontu eta kontabilitateko arau-multzoa garatu eta osatzeko.

Dekretu horiekin (irailaren 21eko 270, 271, 272 eta 273/1998) lortu nahi dena, aurrekontu-kudeaketako dekretuko zioen adierazpenean esaten den bezala, honako hau da: alde batetik, arlo honetan Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritakoa betetzea, eta, bestalde, aurrekontuen alorreko beste puntu batzuen garapena ahalbidetzea; hain zuzen, xehetasun handiagoa eta azalpen gehiago beharrezkoak zituzten beste puntu batzuen.

Dekretu horiek aldarrikatuz, Foru Komunitateak osatu egin du Nafarroako toki entitateek aplikatu beharreko aurrekontu- eta kontabilitate-sistemaren taxuketa.

Aurrekontu eta kontabilitateko arau-multzo berri honek 2000. urteko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra, baina 1999ko ekitaldian aplikatu zitekeen, hala nahi izanez gero.

1999ko martxoan, 4/1999 Foru Legea onetsi zen; horren bidez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea eta Udal Administrazioari buruzko Foru Legea aldatu dira tasen, prezio

publikoen eta enbargaezintasun-araubidearen arloetan. Foru Lege horrek xede du honako hauei buruz Konstituzio Auzitegiak emandako bi epairi egokoitzea:

- Abenduaren 14ko 185/1995 epaia, zeinak konstituzio kontrakoak deklaratzeko baititu Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legeko zenbait arau, eta beste baldintza batzuk ezartzen baititu tasa eta prezio publikoaren kontsideraziorako.

- Uztailaren 15eko 166/1998 epaia, zeinak konstituzio kontrakoak deklaratzeko baititu erabilera edo zerbitzu publiko batera materialki atxikirik ez dauden ondare-ondasunak enbargaezintzat hartzen dituzten lege-xedapenak.

V.2. EZ-BETETZEAK ETA ESKASIAK.

Bestalde, eguneko lege-esparrua kontuan izanik, hainbat ez-betetze gertatu dira zenbait arau emateko ezarri diren epeetan; bestalde, eskasia batzuk ere izan dira toki entitateen kudeaketan zuzenean eragiten duten alderdi batzuk araupeztzeko garaian. Ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

- Bere artikuluetan –nahiz eta eperik eman ez–, TAFLak zenbait neurri jasotzen ditu Foru Komunitateko udal mapa arrazoizkoago egiteko; hain zuzen ere, ematen diren zerbitzuen kalitatea eta kostua hobetzeko asmoz. Neurri horiek udalak batzeari –20.2 artikulua–, Administrazio Barrutiak sortzeari –33. artikulua– eta Mankomunitateak edo udalen arteko beste elkarte mota batzuk eratzeari –53. eta 62. artikulua– buruzkoak dira.

46. artikulua, era berean, aukera eman dio Foru Komunitateari administrazio zerbitzu komunak emateko asmoz toki entitateen batasun derrigorrezkoak sortzeko, dagokion legearen bitartez.

- TAFLko hirugarren xedapen iragankorrak xedatzen du derrigorrezko batasunak eratzearen ondorioz idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostuak behin betiko berregituratu bitartean etenik geldituko direla bai Idazkari eta Kontu-hartzaile izaera eskuratzeko gaitze-deialdiak bai Foru Lege hartan aurreikusitako lehiaketa orokorrak.

Idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako zerbitzuak emateko elkarteak definiturik ez daudenez gero, ezin daitezke lanpostu horietako beharriak ezagutu, eta, beraz, postu horietan sartzeko hautaprobak ere ezin dira ezarri. Gainera, eten horrek, elkarte daitezkeen udalak ez ezik, gainekoak ere ukitzen ditu, nahiz eta iragate-aldi horretan lanpostu hutsak aldi baterako langileen bidez bete daitezkeen.

- TAFLeko hamaikagarren xedapen gehigarriak aipatzen du Nafarroako Gobernuak Aberastasun Komunalaren Erregistroa sortu eta mantenduko duela, eta bertan agertuko dira toki entitateen herrilurren azalera, mugak eta erabilera, eta baita baliabideak sortzeko daukaten gaitasuna ere.

Era berean, aipatu foru legearen hamabigarren xedapen gehigarriak dio merindade bakoitzean eratuko dela Herrilurren Batzarre Arbitrala, toki entitateek eta herri-ustiapenen onuradunek osatua. Aipatu Batzarrak toki entitateentzako aholkua ematekoak izanen dira herri ondasunen probetxamenduari buruzkoan, eta horien jarduna derrigorrez eman behar diren baina lotesleak ez diren txosten publikoetan gauzatuko da.

- Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko bederatzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du behar diren urratsak egin behar direla Montepioen sistema Gizarte Segurantzaren sisteman sartzea lortzeko. Horrekin, amaiara emanen litzaiotke toki entitateetako funtzionarioen gizarte-aurreikuspeneko sistema eguneratzeko prozesuari.

- TOFLak, bere hamaikagarren xedapen gehigarrian, hauxe ezarri du: legeak indarra hartu eta urtebeteko epean –hau da, 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen– Nafarroako Gobernuak toki entitateekiko lankidetzak ekonomikoari buruzko arau bat eginen duela, lankidetzak hori foru lege horretan ezartzen den finantzaketa publikoaren eredu berrira egokitzeko.

- Amaitzeko esan Nafarroako Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarriak hiru hilabeteko epea ezarri zuela, lege horrek indarra hartzetik aitzina –epea 1998ko azaroan amaitu zen–, Nafarroako Gobernuak Parlamentura eraman zezan araudi hori Nafarroako toki entitateek kontratazioaren arloan dituzten berezitasunetara egokitzeko Foru Lege proiektu bat.

Ondorio gisa, ikus daiteke ez-betetzeak izan direla, Foru Komunitateko toki sektore publikoaren eredia eta mapa zehaztu eta taxutzean eragin handia daukaten funtsezko alderdi batzuk gartzeari dagokionez. Era berean, osatu gabeko arau-esparrua izateak halako segurtasunik eza sortzen du, udal kudeaketari inongo mesederik egiten ez diona. Hala ere, 1999an aurrekontu- eta kontabilitate-arloetan aurrera egin dela azpimarratu beharra dago.

• *Gure gomendioa da ahalik lasterren osatzea Nafarroako toki entitateei buruzko arau-esparrua. Gai horretan, bereziki presazkoa da udalen mapa taxutu eta ezartzea, funtzionarioei aplikatzekoa den gizarte-aurreikuspeneko sistema eguneratzea eta esparru hori Nafarroako toki entitateen errealtateari egokitzea.*

• *Halaber, aztertu beharrekoa litzateke Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legearen aldaketak foru araudian izandako eragina.*

VI. 500ETIK 1.000 BIZTANLERA BITARTEKO UDALEN KUDEAKETAREN ZENBAIT ALDERDIRI BURUZKO TXOSTENA

Kontuan harturik txosten honen II.2 atalean adierazitako mugak, ondotik ematen ditugu toki

entitate horietan eginiko lanetik ateratako ondorioak. Lortutako emaitzak bi ataletan zatitu ditugu, gai hauen inguruan:

- Datu ekonomiko orokorrak eta iruzkinak.
- Aztertutako arloetan toki entitateek dituzten arazo komunak.

VI.I. DATU EKONOMIKO OROKORRAK ETA IRUZKINAK

Ondotik ematen dira 500etik 1.000 biztanlera bitarteko udal eta kontzejuen aurrekontu betetzean gainerako datuak, orotara (Lekunberri, Murillo el Fruto, Arre, Zizur Txikia eta Olatz ez ditugu sartu, aurrekontuaren likidazioari buruzko datuak eskuratu ez ditugulako).

Dirusarrerak (pezetak, milakotan)

| Kapitulua | Behin-betiko aurrekontua | Aitorturiko eskubideak | Ehunekoa | Beteze-maila | Kobratua | Kobrانتzen ehunekoa |
|-----------------------------------|--------------------------|------------------------|----------|--------------|-----------|---------------------|
| I. Zuzeneko zergak | 545.798 | 559.404 | 15 | % 102 | 511.482 | 91 |
| II. Zeharkako zergak | 123.561 | 168.575 | 4 | % 136 | 145.208 | 86 |
| III. Tasak eta bestelako dirusar. | 265.637 | 260.113 | 7 | % 98 | 241.179 | 93 |
| IV. Transferentzia arruntak | 953.445 | 977.518 | 26 | % 102 | 943.485 | 97 |
| V. Ondare dirusarrerak | 395.648 | 392.669 | 10 | % 99 | 264.417 | 67 |
| VI. Inbert. errealen besterentzea | 231.764 | 116.079 | 3 | % 50 | 72.671 | 63 |
| VII. Kapital transferentziak | 1.515.351 | 987.576 | 26 | % 65 | 562.440 | 57 |
| VIII. Finantza-aktiboak | 326.743 | - | - | - | - | - |
| IX. Finantza-pasiboak | 528.206 | 327.996 | 9 | % 62 | 327.996 | 100 |
| Guztira | 4.886.153 | 3.789.920 | 100 | % 78 | 3.068.878 | 81 |

Gastuak (pezetak, milakotan)

| Kapitulua | Behin-betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Ehunekoa | Beteze-maila | Ordaindua | Ordainketen ehunekoa |
|------------------------------------|--------------------------|--------------------------|----------|--------------|-----------|----------------------|
| I. Gastos de Personal | 615.131 | 595.449 | 18 | % 97 | 562.826 | 95 |
| II. Gastos en bienes corr. y serv. | 824.251 | 751.010 | 23 | % 91 | 673.516 | 90 |
| III. Gastos financieros | 49.641 | 3.421 | 1 | % 67 | 31.564 | 94 |
| IV. Transferentzia arruntak | 275.810 | 231.007 | 7 | % 84 | 205.165 | 89 |
| VI. Inbertsio errealak | 2.879.659 | 1.507.501 | 46 | % 52 | 1.200.165 | 80 |
| VII. Kapital transferentziak | 173.554 | 79.123 | 2 | % 46 | 77.002 | 97 |
| VIII. Finantza-aktiboak | 834 | 684 | - | % 82 | 684 | 100 |
| IX. Finantza-pasiboak | 107.925 | 102.523 | 3 | % 95 | 89.744 | 88 |
| Guztira | 4.926.805 | 3.300.718 | 100 | % 67 | 2.840.666 | 86 |

34 udal eta kontzeju horien batez besteko populazioa 721 pertsona da (galde-sortari erantzundakoaren arabera populazioa). Aurreko datuekin kalkulatu daiteke ekonomia eta finantzen egoerailatzen duten rati edo indize nagusiak kalkulatu daitezke. Ondotik aurkeztu dira batez besteko ratio funtsezkoak:

| Ratioa | Balioa |
|--------------------------------|--------------------|
| Zorpetze maila | % 6 |
| Zorpetze muga | % 33 |
| Zorpetze ahalmena | % 2 |
| Langileriaren indizea | % 1 |
| Inbertsioaren indizea | % 48 |
| Dirusarrerak biztanleko | 154.585 PTA./bizt. |
| Gastuak biztanleko | 134.646 PTA./bizt. |
| Presio fiskala | 40.307 PTA./bizt. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna | % 52 |
| Aurrezpen garbia | % 27 |

Taula horiek islatzen duten ekonomia eta finantza egoerak ezaugarri hauek ditu:

VI.1.1. Dirusarrerak

- 1999ko ekitaldiko aurrezpen garbia (dirusarrerak arruntak ken gastu arruntak ken gastuen IX. Kapitulua) positiboa da, eta 644.463 mila pezetako zenbateko orokorra egiten du, dirusarrera arrunten ehuneko 27,3. Batez besteko zorpetze ahalmena ehuneko 27koa da, eta bi kasutan soilik gaintu du zorpetze muga (aurrezpen garbi negatiboa).

- Dirusarreraren ehuneko 52 transferentzietatik heldu da, hau da, dirulaguntzetatik, batez ere estatu zentraletik eta Foru Komunitatetik. Ehuneko hori (dirulaguntzekiko menpekotasuna) ehuneko 25etik, gutxienez, ehuneko 89ra, gehienez, bitartean dago.

- Transferentzia arrunten bidezko eskubide aitortuen batez bestekoa 29 milioi pezetakoa da. Kapital transferentzietan batez bestekoa 29 milioi pezetakoa da.

- Tributu dirusarrerak (letik IIIra bitarteko kapituluak) dirusarreraren ehuneko 26 dira, eta udalerrian sortutako dirusarreraren kopuru osoa (ondare dirusarrerak barne) hartuz gero, ehuneko 36ra ailegaten da. Transferentzietatik menpekotasuna egotean, batez besteko presio fiskala ez da handiegia.

- Oro har, dirusarrera arruntak zeharkatuz jasotzen dira aurrekontuetan: betetze maila ehuneko 94koa da, eta eskubide aitortuen kobragarritasunaren ehuneko 89koa da. Zeharkako zergen II. kapitulu nabarmenak dira, ehuneko 136ko betetze maila duelako eta haren aurrekontuaren ehuneko 118 dagoelako kobratuarekin ekitaldiaren amaieran; arrazoia da ondasun higiezin gainera, 1999an gehitu egin baita eraikuntzaren gehikuntza dela eta.

- Dirusarrera ez-arrunten betetze maila txikiagoa da (ehuneko 55). Hauexek dira arrazoiak:

a) kapital transferentzien bidezko eskubide aitortuak (dirusarreraren ehuneko 26) aurrekontuaren nahikoa azpitik daude (ehuneko 65ko betetze maila).

b) Aurrezpen garbia positiboa denez ez da beharrezkoa izan finantzabide berezietara jotzea aurreikusirik zegoen neurrian (inbertsio errealak besterentzea, finantza aktiboak saltzea edo zorpetzea).

VI.1.2. Gastuak

- Gastuen betetze maila ehuneko 92koa da. Finantza gastuen betetze maila txikiagoa da (ehuneko 67), lehen aipatutakoarekin bat, hau da, ez dela beharrezkoa izan zorpetzera jotzea pentsaturik zegoen neurrian. Nolanahi ere, horrek apenas duen eraginik gastu arrunten betetze mailan (ehuneko 91), finantza gastuek aitorturiko obligazio guztien ehuneko bat besterik ez baitute egiten.

- Langileria gastuetako obligazioen batez bestekoa 18 milioi pezetakoa da.

- Inbertsio errealak gastuak dira aurrekontu-gastuaren barrenean pisurik handiena dutenak (ehuneko 46), inbertsioen betetze maila txikia bada ere (ehuneko 52). Betetze maila hori inbertsioetako gastuetan atzerapenak egiten ohi diren seinale da.

VI.2. TOKI ENTITATEEN ARAZO KOMUNAK.

Ondoren komentatzen dugu 500etik 1.000 biztanlera bitarteko toki entitateen egoera komuna, galde-sortan kontuan harturiko arlo bakoitzeko:

VI.2.1. Alderdi orokorrak

Aseguru polizak

Oro har, aseguru polizak artxibatze sistema hobetu behar da, ordenaturik artxibatuz, kontratatu ez diren konpainiei eskatutako eskaintzak orraztuz, aseguru konpainia bakoitzak poliza bakoitzari igorritako gaurkotzeak erantsiz eta balio ez duten agiriak baztertuz. Gomendioa da udal

bakoitzean indarra duten polizen zerrendak, urte amaieran gaurkotuak, sortzea.

Antzeman da hiru udaletan erantzukizun zibileko polizak kontratatzekeo premia dagoela eta beste udal batean suteetarako poliza baizik ez dute.

Erregistroak

Hiru udaletan ez dago agirien sarrera eta irteera erregistrorik, beste bitan irteerakoa baizik ez dago, eta sarrerakoa bakarrik udal batean. Kasu batzuetan, erregistroa eskuz eramaten da.

Akta liburua

Zortzi udaletan aktak papera ofizialean transkribitzen dira, atzerapen handiarekin (baita urtebetekoa ere).

BEZaren erregistro liburua

Udal guztiek dute BEZaren erregistro liburua (oro har, informatizaturik), hiru udaletan izan ezik.

Beste alderdi batzuk

Zenbait udaletan dokumentazioa bilatzeko zailtasunak daudela eta artxiboen ordena falta ikusirik, gure ustez egokia litzateke ezartzea udal funtsak sailkatzeko sistema homologatu bat, agiri funtsei egitura logiko emateko eta artxiboan aurkitzen laguntzeko.

Toki Administrazioiko Departamentuak koaderno bat argitaratu du, Nafarroako udal eta kontzejuen artxiboetarako sailkapen taula bat erakusten duena, eta hori izan daiteke entitate mota horretarako gida.

VI.2.2.Kontabilitatea eta aurrekontuak

2000. urteko aurrekontuaren onspena

2000ko ekitaldiko aurrekontua onestean atzerapenak gertatu ziren kasu gehienetan. Lau udalek baizik ez zuten onetsi epearen barrenean.

Udal gehienetan aurrekontua hasiera batez onesten da eta 15 egunetan jendaurrean egon ondoren ez da aipatzen behin betiko onspena ematen zaion ala ez hurrengo osoko bilkuran.

1999ko kontuen likidazioa

Hiru udaletan kontuen likidazioa epez kanpo onetsi da eta bitan ez da onetsi 1999ko kontuen likidazioa.

Udal batean ez dute onetsi kontuen likidazioa Osoko Bilkuran, alkatetzaren ebazpenaren bidez baizik.

Ordainketa aginduen ziurtagiriak

Oro har, agindu guztiek atxikirik dauzkate ziurtagiri egokiak.

Halere, gora behera esanguratsuenak aipatuko ditugu:

- Udal batean fakturak falta dira eta ez dirudi irizpide zehatzik dagoenik.

- Udal batean, ez alkateak ez idazkariak ez dituzte izenpetzen aginduak.

- Udal batean fakturak aginduei atxiki gabe daude eta gaizki artxibaturik. Izenpetu gabe daude, halaber. Beraz, faktura batzuk falta dira.

- Udal batean aginduak idazkariak izenpetu gabe daude.

Dirusarrerren erresulten izen zerrenda

Udal guztietan dago 1999ko ekitaldiko dirusarrerren erresulten izen zerrenda, Arradako Kontzejuan salbu (ordaintzeko dauden agiriak fotokopiatu eta dirubilketaren agentziara bidaltzen dira, gordetzeko inolako zerrendarik sortu gabe).

Kutxako erregistroak, bankuak, gastuen kontuhartzaitzako egunerokoa eta VIAP

Udal guztietan, bitan izan ezik, egunean eramaten dira erregistroak, gutxi gorabehera.

Aurrekontuko aldaketak

Sei udalek ekitaldia ixtean egiten dituzte, behar ez bezala, eta zortzik ez dute egiten. Horrek esan nahi du gastu batzuk aurrekontuaren mugak gaindituz egiten direla.

Batzuetan, aitorturiko obligazioek lotespen juridikoko boltsetan ezarritako mugak gainditzen dituzte, beharrezkoak diren aurrekontu aldaketak onetsirik egon gabe.

Beste alderdi batzuk

Kontabilitatea maiz egiten da kutxako irizpideari, ez sortzapenekoari, jarraikiz. Transferentzia bidezko dirusarrereki ere gauza bera gertatzen da, eta horrek ezaltzen du hein batean kapital tranferentzien betetze maila, orotara, ehuneko 65ekoa izatea. Nabarmendu behar dugu kutxako irizpideari jarraikiz kontabilizatzek (bankuko laburpenetan oinarriturik, adibidez) ekar dezakeela gastuen aurretiko fiskalizazioa modu desegokian egitea.

Lan programan sarturik ez bazegoen ere, batzuetan antzeman da diruzaintzako gerakineta-kobratzen zailak diren saldoak ez direla 270/98 Foru Dekretuaren arabera kalkulatu: toki entitateak ez badu balorazio irizpiderik ezartzen, kobratzeke dauden eskubide biltzen zail edo ezinezkotzat hartuko dira zordunen ehuneko 50, itxi aurreko ekitaldian likidaturiko aurrekontu eskubi-deei baldin badagozkie, eta eskubideen ehuneko 100, itxi aurreko ekitaldiaren aurreko ekitaldietan likidatutakoei baldin badagozkie.

VI.2.3.Langileria

Aldi baterako lan-kontratudunen kontratazioa

Hautatzeko prozedurari dagokionez, aldi baterako lan kontratudunen kontratazio gehienak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako lanpostuak dira, eta kasu horietan hautatzeko prozedura egokia da.

Halere, badira aldi baterako beste kontratazio batzuk (liburutegietako eta ludoteketako langileak, administrari laguntzaileen bajak, igerilekuetako sorosleak udarako, idazkarien oporrak...), eta horietan langileak ez dira hautatzen deialdi publikoaren bitartez eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarrituriko probak eginez.

Langileen espedienteak

Oro har, ikusiriko udal gehienetan daude langileen espedienteak.

Halere, oro har ere, espedienteetan inguruabar hauetakoren bat izaten da:

- Ez dute dokumentazio egoki guztia biltzen (maila bakoitzaren gradu eta kategoria igotzeak, lansari osagarriak, familiako laguntzak, zerbitzu bereziak edo eszendentziak, etab.)

- Ez daude behar bezla gaurkoturik.

Nominen kontabilizazioa

Udal guztietan kontabilizazten dira nominak egokiro.

PFEZ atxikipenak

Udal guztiek epetik kanpo aurkezten dituzte, salbuespenak salbu, eta atxikipenak egiten dizkiete profesionalei.

Beste alderdi batzuk

Zenbait udaletan ez dago administrari laguntzailerik eta idazkariak partekatzen dituzte; garbi ikusten da beharrezkoa dela lan administratiboak egiteko eta jendearekin egoteko langile gehiago izatea, idazkariak berezko dituzten lanetan ari daitezten.

VI.2.4 Tributuo bidezko dirusarrerren kudeaketa

Errolden onespina

Oro har, erroldak Udaltzat, osoko Bilkuran, edo alkateak onesten ditu.

Luzapeneko errekarua - Dirubilketa agentea

Udal gehienek ez dute luzapen errekarurik aplikatzen borondatezko ordainketa epea iraganik eta bai, ordea, berriz jakinarazi edo gordailuzainaren bitartez gaztigatu.

Oro har, zordunen indizea oso txikia denez, batzuetan ez da erabiltzen ezta dirubilketa agenterik ere. Orokorrean ordaindu gabeko ordainagiriaren kontrola zorrotza da, eta zerrenda gaurkotuak egoten dira.

Udal gehienek dirubilketa agenteari igortzen dizkiote zorrak urte amaieran.

Era berean, udal gehienetan zordunen saldoak ez dira urtero orrazten. Badira, adibidez, preskribiturik egonen diren saldoak.

Beste alderdi batzuk

Bi udaletan 1999an aplikatu beharreko tasak eta tarifak aurrekontualdia hasi ondoren onetsi zituzten.

VI.2.5.Diruzaintza

Banku funtsak erabiltzeko sinadurak

Lau kasutan dute banku funtsak erabiltzeko banakako sinadura.

Kontaketa aktak eta banku berdinkatzeak

Ikuskaturiko udaletan aldiro egiten dira kutxa-kontaketak eta egiaztatzen da bankuko laburpenak eta kontabilitatea bat heldu ote diren (berdinkatzeak, agiri estandarizatuan egin ohi ez badira ere), bankuko laburpen guztiak punteaturik eta kontrolaturik daude.

Beste alderi batzuk

Udal gehienetan ordainketarako prozedura erabiliena bankuko transferentzia da eta kobratzea bakuan helbideratzea. Nolanahi ere, gordailuzaintza duten udaletan, dirutan ordaindu eta kobratzen denaren ehunekoa hania da.

VI.2.6. Erakunde autonomoak

Lau udalek bakarrik dituzte erakunde autonomoak. Bi kasutan, gastuak kontu-hartzailetzak aztertzen ditu, baina beste batzuetan ez dago horrelakorik.

VI.2.7. Kontratazioa**Orokorra**

Antzemandako akats nagusiak hauexek dira:

- Espedientetan ez da agertarazten egindako prozedura osoa. Adibidez: lehiaketa bat eman gabe gelditzen bada, lizitatzailerik ez delako aurkeztu, espedienteetan ez da ageri, ez eta obren prezioen igoerak eta abar.

- Batzuetan txosten juridikoak eta kontu-hartzailetzakoak falta dira.

- Kasuren batean ez da BEZa sartzen kontratuen lizitazio eta adjudikazio prezioan.

- Kasu batzuetan, enpresek aurkeztutako dokumentazioa ez dago osaturik (enpresaren sailkapena falta da, kaudimen teknikoak ez dago behar beste justifikaturik).

Obra kontratuak

Antzemandako akatsak hauexek izan dira:

- Obrak egiteko epeak ez betetzea.

- Obraren exekuziorako zenbatekoak adjudikazioaren zenbatekoa baino handiagoa izaten ohi da.

- Kontratazio mahaiak adjudikaziorako erabili dituen izipideak edo baremoak ez dira ageri espedienteetan.

- Kontratuarena adjudikazioa jaso ez duten enpresei egindako jakinarazpenak ez dira ageri espedienteetan.

- Kasu batzuetan modu desegokian erabiltzen da prozedura negoziatua. Zenbatekoa dela-eta, adjudikazio prozedurak enkantea edo lehiaketa izan behar du.

Hornidura edo laguntza kontratuak

Ohikoa da prozeduran akatsak izatea, ez baitaio Kontratuei buruzko Foru Legeari lotzen hitzez hitz: kontratazio espedienteak ez du behar den dokumentazioa, zenbatekoaren arabera egoiak diren prozedurak ez dira aplikatzen, zuzeneko adjudikazioa erabiltzen da edo kontratua zati-katu egiten da.

VI.2.8. Galdera irekiak

Galde-sortaren galderei emandako erantzunak laburbiltzen dira ondoren, gaien arabera multzokaturik:

Mankomunitateko zerbitzuak

Hauexek izan ohi dira: oinarrizko gizarte zerbitzua, hiri hondakin solidoen bilketa, ur hornidura, energia elektrikoaren banaketa, turismo partzuergoak, ORVE, euskara zerbitzuak, kirolak.

Kudeaketaren arazo nagusiak

Lan administratiboak betetzeko langile falta (idazkaria partekaturik duten eta administrari laguntzaile gabeko udalak), teknikari falta (kontu-hartzailea, urbanista...) bertako politikarien prestakuntza falta aurrekontu oso txikiak gero eta zerbitzu hobek eman ahal izateko; azpiegitura falta eskatzen diren zerbitzuak eman ahal izateko; udal osatuetan eskumen gatazka dago kontzejuekin, NAO argitaratzea oso mantsoa da eta espedienteen tramitazioa baldintzatzen du, IAEn euskarria den programa informatikoak arazo asko ditu.

Kudeaketaren zenbait jarduera hobe litezke mankomunitatearen bidez eginez gero: bideetako garbiketa, mantentze-lanak, herritarrez ardurtzea, epaiketarako abokatuen laguntza eta abar.

Araudiak ez du aintzat hartzen toki entitate txien errealitate administratiboa

Udal gehienek uste dute araudiak ez duela aintzat hartzen toki entitate txikien errealitatea, batez ere kontratazio administratiboaren, hirigintzaren eta kapital transferentzien alorrean (hiru urteko plana).

Zalantzak eta arazoak konpontzea

Oro har, beste udaletako kideengana jotzen da, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziora, Toki Administrazioiko Departamentura, kanpoko aholkulariengana eta abarretara.

VII. 1999ko FINANTZEN EGOERA-ORRIEN ANALISIA

Atal hau honako azpiatal hauetan egituratuta dago:

VII.1. 1999ko aurrekontu-betetzea: udalak eta kontzejuak

VII.2. 1999ko aurrekontu-betetzea: mankomunitateak eta udalerrri-batasunak

VII.3. Toki sektore publikoaren zorpetzea 1999-XII-31n.

VII.1. 1999ko AURREKONTU-BETETZEA: UDALAK ETA KONTZEJUAK

II.2. atalean azaldutako mugak kontuan izanik, eginiko lanaren ondoriozko iruzkinak agertuko ditugu jarraian.

VII.I.I. Aurrekontu-likidazioaren egituraren osaera (ikus III.4.2 ataleko taula)

• 1999ko ekitaldiari dagozkion udal eta kontzejuen eskubide aitortuek, haien menpeko era-

kunde autonomoenak barne, 73.153 milioi pezeta egiten dute eta betebeharrak aitortuek, 69.761 milioi pezeta; horrela, ba, ekitaldia 3.392 milioi-ko aurrekontu-saldoarekin itxi da, aurreko ekitaldian (7.402) baino 4.010 milioi gutxiago. Gogoratu aztertutako datuak udalen ehuneko 91tik (248), 518.701 biztanlerekin (538.009 biztanleko zentsu baten ehuneko 96,5, 1999ko urtarrilaren 1ean).

Aurrekontu saldo hori, positiboa izanik ere, aurreko urtekoa baino 4.010 milioi txikiagoa izatearen zergatia da betetako gastuen igoera dirusarrerena baino handiagoa izan dela. 1999ko betetzean gastuen igoera ehuneko 11,5koa izan zen eta dirusarrerena ehuneko 4,6koa, 1998koarekin alderaturik (azken hau, populazioaren ehuneko 97,8 hartzen duen informazioaren arabera).

• Gastuek eta diru-sarrerek egiturazko osaera hau daukate, eragiketa arrunten arloan eta kapital edo finantzen arloan multzokatua:

| Gastuak | 1997 | 1998 | 1999 | Dirusarrerak | 1997 ⁽¹⁾ | 1998 | 1999 |
|---------------|------|------|------|---------------|---------------------|------|------|
| Arruntak | % 65 | % 64 | % 59 | Arruntak | % 72 | % 73 | % 75 |
| Kapitalarenak | % 35 | % 36 | % 41 | Kapitalarenak | % 28 | % 27 | % 25 |

(1) 1997an hirigintza arloko dirusarrerak, alderaketari dagokionez, kapital dirusarrera gisa birsailkatu dira.

Analisiak agertzen du gastuetan aldaketa nabarmena dagoela, kapitaleko gastuek 4,4 puntu gora egin baitute, arrunten kaltetan. Dirusarreretan, ordea, dirusarrera arruntek gora egin dute 2,2 puntu, eta kapital dirusarrek behera egin dute kopuru berdinean.

Ondorio gisa ikusten da dirusarrera arruntak (54.648 milioi) nahikoak direla izaera bereko gastuak (41.495 milioi) finantzatzeko eta, areago, kapital gastuetarako gero eta baliabide gehiago ematen dituztenez zenbait adierazle, "zorpetze-muga" eta "zorpetze ahalmena" edo aurrezpen garbia, zehazki, hobetu egin dira.

• Gastu-kapituluen ikuspegitik, honako hauen garrantzia azpimarratu behar dugu: langileei dagokiena –gastuaren ehuneko 29,5–, inbertsioak –ehuneko 34,4– eta erosketak –ehuneko 23,3–. Aurreko hiru kapitulu horiek udal eta kontzejuetako gastuaren ehuneko 87 hartzen dute. 1998ko

egoerarekiko, inbertsio errealeko kapituluak lau puntuko gorakada izan du (5.194 milioi).

• Finantza-iturriak honela banaturik daude, aurreko ekitaldikoekin alderaturik:

| Finantza-iturriak | 1997 ^(*) | 1998 | 1999 |
|--|---------------------|-------|-------|
| Tributuak (kap.1, 2 eta 3) | % 37 | % 34 | % 35 |
| Transferentziak (kap.4 eta 7) ^(***) | % 42 | % 43 | % 48 |
| Hirigintza-izaerakoak (kap.7) | % 7 | % 4 | % 6 |
| Finantza-izaerakoak (kap.8 y 9) | % 9 | % 6 | % 4 |
| Ondare-izaerakoak (kap.5 y 6) | % 4 | % 12 | % 8 |
| Guztira | % 100 | % 100 | % 100 |

(*) Alderaketa egiteko 1997ko hirigintza arloko dirusarrerak, ordura arte dirusareren 3. kapituluaren zeudenak, 7. kapituluaren sartu ditugu (***)

Hirigintza arloko 7. kapituluaren dirusarrerak bereizirik birsailkatu ditugu alderaketa egiteko.

Aurreko taulako ehunekoak ikusirik, azpimarratu behar da transfrentzia bidezko dirusarreraren igoera, bost puntuko; udal eta kontzejuen finantzabide nagusia bihurtu da eta tributu bidezko dirusarrerekin 13 puntuko aldea dute. Hirigintza dirusarreraren ehunekoa ere aurreko ekitaldikoa baino altuxeagoa da.

VII.I.2. Udal eta kontzejuetako adierazlerik garrantzitsuenak

Azterturiko entitateen eta biztanlerien arteko desberdintasunak kontuan izanik, jarraian 1999ko aurrekontu-betetzean oinarrituriko adierazle-multzobaten berri emanen dugu, eta adierazle horiek aurreko ekitaldikoekin konparatuta agertuko ditugu.

Udal eta Kontzejuen ratioak: 1999

| Adierazlerik garrantzitsuenak | 1999 | 1998 | 99/98 aldaketa, % |
|--|---------|---------|----------------------|
| Erreferentziatako biztanle kopurua | 518.701 | 519.612 | -0,2 |
| Zentsu ofiziala, urtarrilaren 1ekoa | 538.009 | 530.819 | |
| Aurrekontuko superabita/defizita (milioitan) | 3.392 | 7.402 | -54,2 |
| Diru-sarrerak, bizilaguneko (pezetatan) | 141.033 | 134.549 | 4,8 |
| Gastuak, bizilaguneko (pezetatan) | 134.492 | 120.303 | 11,8 |
| Finantza-zama, bizilaguneko (pezetatan) | 7.164 | 6.747 | 6,2 |
| Zerga presioa | 49.318 | 46.243 | 6,6 |
| Kobrانتzen betetzea (%) | % 87 | % 88 | -1 |
| Ordainketen betetzea (%) | % 89 | % 87 | 2 |
| Zorpetze-maila-Finantza-zama (%) | % 7 | % 7 | -2 |
| Zorpetze-muga (%) | % 26 | % 23 | 11 |
| Aurrezki garbia (%) | % 19 | % 16 | 16 |
| Langileria-indizea (%) | % 30 | % 32 | -8 |
| Inbertsio-indizea (%) | % 36 | % 31 | 14 |
| 4 eta 7. kapituluekiko menpekotasuna (%) | % 53 | % 47 | 12 |
| Diru-laguntzekiko menpekotasuna (hirigintza kenduta) | % 48 | % 43 | 10 |
| Gastu arrunta bizilaguneko (pezetatan) | 79.998 | 76.927 | 4,0 |

Ratioak konparatzeko taula horretatik honako hau ondorioztatzen da:

- Bizilagun bakoitzeko diru-sarrerek 6.484 pezetako, hau da, ehuneko 4,8ko igoera izan dute; gastuek, ordea, 14.189 pezetakoa, ehuneko 11,8koa, hortaz.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerek 3.075 pezetako igoera izan ute, hau da, ehuneko 6,6koa.

- Biztanle bakoitzeko finantza-kargak ere gora egin du: 417 pezeta. Beraz, aurreko urteko joera, 1.144 pezeta gutxiagotu baitzen, aldatu egin da.

- Aurrezki garbiaren ehunekoak 16 puntuko igoera izan du eta, 1999an, ehuneko 18,8koa izatera iritsi da.

- Kobrانتzen eta ordainketen ehunekoak 1998an eta aurreko urteetan zituzten balio bere-suetan daude.

- Inbertsio-indizeak bost puntu egin du gora, eta gastuen guttizkoaren ehuneko 36 izatera pasa da; langileei dagokienez, 1998koa baino ia 3 puntu txikiagoa da.

- Dirulaguntzekiko menpekotasunaren indizea (hirigintzako dirusarrerak kenduta) ehuneko 47,5ekoa da; 1998an ehuneko 43,1ekoa izan zen.

VII.I.3. Biztanleria-tarteen arabeko adierazleak

Jarraian azalduko ditugu 1999koari buruzko analisisan erabilitako ratio nagusiak, biztanleria-tarteen arabera -5.000 baino gutxiagokoak, 5.000tik 50.000ra artekoak eta 50.001 baino gehiagokoak-. Ekitaldi horretako aurrekontu-betetzeari buruzko datuak txosten honetako 1. eranskinean daude jasota.

Udalak eta kontzejuak, biztanleria-tarteen arabera

| | 5.000 biztanle baino gutxiagoko entitateak | 5.000-50.000 biztanleria bitarteko entitateak | 5.000 biztanle baino gehiagoko entitateak |
|---|--|---|---|
| Erreferentziatako biztanle kopurua | 192.437 | 145.781 | 180.483 |
| Aurrekontuko superabita/defizita (milioitan) | 1.986 | 1.836 | -429 |
| Diru-sarrerak, bizilaguneko (pezetatan) | 169.733 | 130.755 | 118.733 |
| Gastuak, bizilaguneko (pezetatan) | 159.415 | 118.158 | 121.112 |
| Finantza-zama, bizilaguneko (pezetatan) | 7.794 | 5.905 | 7.509 |
| Tributu bidezko dirusarrerak-Zerga presioa (pezetatan) | 48.746 | 49.822 | 49.520 |
| Kobrانتzen betetzea (%) | % 86 | % 85 | % 92 |
| Ordainketen betetzea (%) | % 88 | % 88 | % 90 |
| Zorpetze maila-Finantza zama (%) | % 7 | % 6 | % 7 |
| Zorpetze-muga (%) | % 33 | % 24 | % 19 |
| Aurrezki garbia (%) | % 26 | % 18 | % 12 |
| Langileria-indizea (%) | % 18 | % 37 | % 39 |
| Inbertsio-indizea (%) | % 51 | % 29 | % 21 |
| 4 eta 7. kapituluekiko menpekotasuna (%) | % 51 | % 56 | % 54 |
| Diru-laguntzekiko menpekotasuna (hirigintza kenduta) ⁽¹⁾ | % 46 | % 46 | % 51 |
| Gastu arrunta bizilaguneko (pezetatan) | 72.194 | 79.888 | 88.409 |

(1) "Diru-laguntzekiko menpekotasuna" ratioa kalkulatzeko kuotengatikoko eta hirigintza eskubideengatikoko dirusarrerak deskontatu dira, hain zuzen 7. kapituluan kontabilizatutakoak (Guztira, 4.036 milioi pezeta). Hona azalpena: 1. tarte, 1.395 milioi; 2. tarte, 3.390 milioi, eta 3. tarte, 670 milioi pezeta.

Azalduriko ratio horien alderaketan oinarrituz lortzen den ondorio nagusia, eginiko hainbat txostenetan errepikatu den bezalaxe, hauxe da: udal sektorea, biztanleria-tarteen arabera azertzen denean, modu ezberdinean osaturik dagoela. Bestalde, hauxe adierazi behar dugu:

- Oro har, entitate txikietan biztanle bakoitzeko diru-sarreraren eta gastuen zenbatekoa handiagoa da entitate ertainetan baino (40.000 pezeta inguru). Tributu bidezko per capita diru-sarrerak, ordea, oso antzekoak dira hiru tarteetan, mila pezeta inguruko aldeekin.

- Alabaina, biztanle bakoitzeko finantza-zama txikiagoa da entitate txikien tartean besteetan baino (1.600-1.800 inguru).

- Kobrانتzen eta ordainketen ehunekoak antzeko mailetan mantentzen dira entitate txiki eta ertainetan (ehuneko 85 inguru kobrantzetarako

eta ehuneko 88 inguru ordainketetarako), baina biztanle gehien dutenek maila handiagoa dute (ehuneko 92koa kobrantzetarako eta 90 ordainketetarako)

- Langileria-indizea handituz doa biztanleria handituz joan ahala; bereziki deigarria da beheko tartetik (ehuneko 18) erdiko tartera (37) eta goiko tartera (39) dagoen aldea.

- Tarte guztietan transferentziekiko menpekotasun handia antzematen da –baliabideen ehuneko 46tik 51era bitartekoa–; funtsean, toki entitateen finantzaketa-ereduaren eta inbertsio-planen ondoriozkoa da hori.

- Azkenik, analisia osatzearen, ondoko taulan adierazleen laburpen bati buruzko udal eta kontzejuen informazioa agertzen da, 6 biztanleria-tarteen arabera:

| UDALAK 1999 | | | | | | | | | |
|-----------------------|-------------|----------------------------------|-------------|------------------------------------|--|---|-----------------|------------------|-------------------|
| | Tamaina | Erreferentziako entitate kopurua | Biztanleria | Gastu arruntak biztanle bakoitzeko | Dirusarrera arruntak biztanle bakoitzeko | Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bako. | Zorpetze muga-% | Zorpetze maila % | Aurrezki garbia % |
| 1 | 1-1.000 | 173 | 53.202 | 61.497 | 97.908 | 40.137 | 39 | 5 | 33 |
| 2 | 1001-3000 | 46 | 84.658 | 70.923 | 101.158 | 51.681 | 32 | 9 | 22 |
| 3 | 3001-5000 | 15 | 54.577 | 73.282 | 97.234 | 49.384 | 26 | 7 | 19 |
| 4 | 5001-10000 | 7 | 48.093 | 72.240 | 98.147 | 50.651 | 28 | 6 | 22 |
| 5 | 10001-50000 | 6 | 97.688 | 83.652 | 104.310 | 49.413 | 22 | 5 | 16 |
| 6 | >50000 | 1 | 180.483 | 88.408 | 107.520 | 49.519 | 19 | 7 | 12 |
| Nafarroa, batez beste | | | 518.701 | 79.998 | 105.355 | 49.318 | 26 | 7 | 19 |

| KONTZEJUAK 1999 | | | | | | | | | |
|-----------------|---------|----------------------------------|-------------|------------------------------------|--|---|-----------------|------------------|-------------------|
| | Tamaina | Erreferentziako entitate kopurua | Biztanleria | Gastu arruntak biztanle bakoitzeko | Dirusarrera arruntak biztanle bakoitzeko | Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bako. | Zorpetze muga-% | Zorpetze maila % | Aurrezki garbia % |
| Kontzejuak | | 248 | 19.852 | 31.097 | 63.097 | 8.806 | 52 | 6 | 46 |

Datu horietatik ateratzen diren ondorioak udalei buruzko aurreko taulako ia berak dira; kontzejuetan, aipagarria da gastuetan eta diru-sarreretan ahalmen nabarmenki txikiagoa daukatela.

VII.2. 1999KO AUREKONTU-BETETZEA MANKOMUNITATEETAN ETA UDALERRI-BATA-SUNETAN.

Jarraian, eskuraturiko datuak aztertuz lorturiko ondorio nagusien berri emanen dugu; aipaturiko entitateen ehuneko 50ari buruzkoak dira, gutxi gorabehera (35ek aurkeztu dituzte kontuak eta 38k ez), baina entitate handienak dira. Txosten hau amaituta bidali zituzten kontuak (ikus 3. eranskina).

Azterketak eta konparazioak egiteko, kontuan hartu beharra dago aldaketa handiak daudela

batetik bestera; 1998ko kontuak ditugun 38 entitateetatik hamaikak ez dute konturik aurkeztu 1999an.

VII.2.1.Mankomunitateen/batasunen aurrekontu-likidazioaren egituraren osaera (ikus III.4.3 idatzatiaren taula)

- Aitorturiko eskubideak 6.382 milioi pezetakoak dira –1998an baino 1.065 milioi gehiago–, eta aitorturiko betebeharrak, 6.167 milioioikoak –1998an baino 976 milioi gehiago–; horrela, ba, aurrekontu-saldoa positiboa da, 215 milioiokoa.

- Eragiketa arrunten eta kapital-finantzetakoen arloetako gastu eta diru-sarrera metatuen egituraren osaera jarraian azaltzen da, aurreko urtekoarekin alderatu ahal izateko kopuruak ere (ehunekotan) aipatzen direla:

| | | | | | |
|---------------|------|------|---------------|------|------|
| Gastuak | 1998 | 1999 | Dirusarrerak | 1998 | 1999 |
| Arruntak | % 44 | % 45 | Arruntak | % 54 | % 55 |
| Kapitalarenak | % 56 | % 55 | Kapitalarenak | % 46 | % 45 |

- Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera, honakoak nabarmentzen dira: inbertsio errealak –ehuneko 34–, erosketak –ehuneko 20–, kapital-transferentziak –ehuneko 15– eta langileak –ehuneko 13–. Transferentzia arruntek ehuneko 11

egiten dute –ehuneko 3, 1998ko ekitaldian– batez ere mankomunitateek beren sozietate instrumentalei eginiko transferentzia arruntak direla-eta.

- Finantzabideak honakoak dira

| Finantzabideak | Ehunekoa 1998 | Ehunekoa 1999 |
|---|------------------|------------------|
| Tasak eta bestelako dirusarrerak (kap.3) | 31 | 31 |
| Transferentziak (kap.4 eta 7) | 60 | 59 |
| Finantzarioak (kap.8 eta 9) | 6 | 6 |
| Ondarekoak (kap.5 eta 6) | 3 | 4 |
| Guztira | 100 | 100 |

Hau da, transferentzia bidezko finantzaketa da

nagusi –izan ere, aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 59k finantza-iturri hori daukate–.

VII.2.2.Mankomunitate/batasunen adierazlerik esanguratsuenak.

Ondoko taulan 1999ko aurrekontu-betetzetik lorturiko adierazle-multzo bat erakutsiko dugu, aurreko ekitaldiko balioekin alderatuta –betiere, informazioaren distortsioa aintzat hartuta–.

| Adierazlerik esanguratsuenak | 1999 | 1998 | 1999/1998 aldaketa, % |
|---|---------|---------|--------------------------|
| Nafarroako biztanleak zentsu ofizialaren arabera | 538.009 | 530.819 | 1,4 |
| Erreferentziatako populazio metatua-estalia | 711.672 | 660.097 | 7,8 |
| Aurrekontu-superabita/defizita (milioitan) | 215 | 124 | 72,5 |
| Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan) | 11.863 | 10.016 | 18,4 |
| Gastuak biztanle bakoitzeko (pezetatan) | 11.464 | 9.781 | 17,2 |
| Finantza-zama biztanle bakoitzeko (pezetatan) | 200 | 204 | -1,9 |
| Zerga presioa (pezetatan) | 3.650 | 3.117 | 17,1 |
| Kobrانتzen betetzea (ehunekotan) | % 91,3 | % 85,6 | 6,6 |
| Ordainketen betetzea (ehunekotan) | % 86,1 | % 81,8 | 5,3 |
| Zorpetze-maila | % 3,1 | % 3,8 | -18,9 |
| Zorpetze-muga (ehunekotan) | % 22,0 | % 20,7 | 6,0 |
| Aurrezki garbia (ehunekotan) | % 18,9 | % 16,9 | 11,5 |
| Langileria-indizea (ehunekotan) | % 12,8 | % 14,2 | -9,6 |
| Inbertsio-indizea (ehunekotan) | % 48,6 | % 52,1 | -6,8 |
| 4 eta 7. kapituluekiko menpekotasuna (ehunekotan) | % 58,8 | % 60,2 | -2,3 |
| Gastu arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan) | 5.148 | 4.330 | 18,9 |

Adierazle horiek aztertu ondoren, hauxe aipatu behar dugu:

Aurreko taulan populazioari buruzko bi datu eman ditugu. Populazio metatu/estaliarenak mankomunitateen zerbitzuak hartzen dituzten biztanle kopuruak batzen ditu –datuak dauzkagun kasuan–. Nolanahi ere, biztanleko ratioak kalkulatzeko “Nafarroako biztanleak errolda ofizialaren arabera” datu obehktiboaz baliatzen gara, eskura dugun informazioa urte batetik bestera aldatu daitekeela baldin badakigu ere.

- Biztanle bakoitzeko gastuak eta diru-sarrerak, 1999an, 11.500-11.800 pezeta ingurukoak dira eta aurreko ekitaldian, berriz, 10.000-9.800 pezeta ingurukoak.

- Tributu bidezko per capita diru-sarrerak 3.650 pezeta dira, eta horien finantza-zama 200 pezetakoa besterik ez. Azken datu horrek zorpetze-maila baxua –ehuneko 3,1ekoa– islatzen du.

- Inbertsioek jardueraren ehuneko 49 hartzen dute, eta jardueraren ehuneko 59 transferentzien bitartez finantzatzen da.

VII.3. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA 1999-XII-31N.

VII.3.1. Zor bizia 1999ko abenduaren 31n

Toki Administrazioiko Departamentuak eskuratutako informazioaren arabera, informazio hori bidali duten toki entitateek 1999ko abenduaren 31n daukaten zor bizia honako hauxe da:

| 1999ko zorra | Erreferentziako biztanleria | 99-1-1ko zentsu ofizialaren arabera biztan. % | Zorra Nafarroako Gobernuarekin | Zorra Finantza Entitateekin | Zorra, guztira | Per cápita zorra (pezetatan) |
|-----------------|-----------------------------|---|--------------------------------|-----------------------------|----------------|------------------------------|
| Udalak | 523.281 | 97 | 4.600 | 19.490 | 24.090 | 46.038 |
| Kontzejuak | 19.101 | 40 | 132 | 554 | 686 | 35.959 |
| Mankomunitateak | - | - | 1 | 758 | 759 | - |
| Guztira | - | - | 4.733 | 20.802 | 25.535 | - |

Aurreko datu horiek 242 udaletatik, 232 kontzejutatik eta 36 mankomunitetatik eskuratuak dira, eta Nafarroako biztanleen ehuneko 97,2ri dagozkie.

Ikus daitekeen bezala, zorraren ehuneko 18,5 Nafarroako Gobernuarekin daukate, eta ehuneko 81,5 finantza-entitateekin. Bestalde, zorraren guztizkoaren ehuneko 94,3 udalei dagokie.

Biztanleen ikuspegitik, udal bateko herritar bakoitzari 46.083 pezeta dagokio. Kontzeju batean, berriz, zenbatekoa 35.959 pezetakoa da.

VII.3.2. Zor biziaren alderaketa, 1998-1999

Aurreko ekitaldiarekin alderatu eta izan duen bilakaera aztertu ahal izateko asmoz, bi ekitaldietako datuak guretzat eskuragarri izan ez dituzten toki entitateak ezabatu egin ditugu ("zor homogeneizatua"). Beraz, zorrari buruzko informazioa 191 udal, 169 kontzeju eta 24 mankomunitateri dagokie, zeinek Nafarroako eroldaren ehuneko 87 hartzen baitute.

Ondoko koadroan agertzen dira lorturiko emaitzak:

Zorra-homogeneizaturiko datuak, 1998-1999

| | 1998ko biztanleria | 1999ko biztanleria | 1998ko zorra (milioitan) | 1998ko per cápita (pezetatan) | 1999ko zorra (milioitan) | 1999ko per cápita (pezetatan) |
|-----------------|--------------------|--------------------|--------------------------|-------------------------------|--------------------------|-------------------------------|
| Udalak | 460.895 | 467.894 | 22.559 | 48.946 | 21.167 | 45.239 |
| Kontzejuak | 13.220 | 13.420 | 586 | 44.327 | 541 | 40.313 |
| Mankomunitateak | - | - | 1.262 | - | 734 | - |
| Guztira | | | 24.407 | - | 22.442 | - |

"Zor homogeneizatua" izeneko aurreko taula horri buruz aipatu beharrekoak:

- Guztizko zorrak ehuneko 8 egin du behera 1998rekin alderaturik. Beherakada horren zergatia da udal eta kontzejuen zorra jaitsi egin dela —ehuneko 6 eta 71, hurrenez hurren—, eta bereziki mankomunitateena, ehuneko 42.

- Udalen per capita zorrak ere 3.707 pezetako beherakada izan du, eta biztanle bakoitzeko

45.239 pezetako zenbatekoa jo du. Kontzejuetan ere beherakada izan da, 4.014 pezetakoa

VII.3.3. Udal eta kontzejuen zorraren banaketa eskualde geografikoetan

Ondoko koadroan agertzen dira udal eta kontzejuen zor bizi homogeneizatuaren banaketa eskualde geografikoetan zehar eta haien per capita zorpetzea, 1999ko abendukoak:

Udal eta kontzejuen zorra: banaketa eskualdeetan

| Eskualdeak | Zorra, guztira | | guzt./g. | Gora/Behera 99/98 | Aztertutako biztanleria | | Per cápita | |
|-------------------------|------------------------------|--------|----------------------|----------------------|-------------------------|----------------|---------------------|--------|
| | 1998 (pezetak, milioitan) | 1999 | 1999 (ehunekotan) | | 1998 Udalak | 1999 Udalak | 1998 (pezetatan) | 1999 |
| Kantauriko haranak | 1.855 | 1.598 | 7 | -14 | 24.175 | 24.305 | 76.738 | 65.757 |
| Kantauriaurreko haranak | 553 | 683 | 3 | 24 | 18.096 | 18.122 | 30.576 | 37.670 |
| Pirinioetako haranak | 199 | 239 | 1 | 20 | 6.931 | 7.192 | 28.665 | 33.260 |
| Pirinioaurreko haranak | 664 | 733 | 3 | 10 | 9.997 | 10.073 | 66.446 | 72.735 |
| Iruñerria | 10.505 | 9.459 | 44 | -10 | 253.742 | 258.685 | 41.401 | 36.565 |
| Lizarraerria | 1.037 | 914 | 4 | -12 | 27.905 | 28.301 | 37.165 | 32.286 |
| Ekialdeko erdialdea | 1.153 | 1.422 | 7 | 23 | 24.152 | 24.187 | 47.733 | 58.809 |
| Erribera garaia | 2.264 | 1.897 | 9 | -16 | 30.854 | 31.055 | 73.382 | 61.101 |
| Erribera behekoa | 4.916 | 4.764 | 22 | -3 | 65.043 | 65.974 | 75.582 | 72.209 |
| Guztira | 23.146 | 21.709 | 100 | -6 | 460.895 | 467.894 | 50.221 | 46.398 |

Taula horretatik aipatu beharrekoak:

- Zorraren ehuneko 44 Iruñerrian bildurik dago; hain zuzen ere, eskualde horrek hartzen du aztertutako biztanleriaren ehuneko 55. Beste eskualde garrantzitsuak hauexek dira: Erriberaren Hegoaldea –zorraren ehuneko 22 eta biztanleriaren ehuneko 14 biltzen ditu–, Kantauriko haranak eta Erribera Garaia –bakoitzak guztizko zorraren ehuneko 9 eta biztanleriaren ehuneko 6,6 biltzen ditu–.

- 1998ko datuekin alderatuz, udal eta kontzejuen zorrak ehuneko 6ko beherakada orokorra izan du. Eskualdeka, ehunekoek nabarmen egin dute gora garrantzi erlatibo txikiko tokietan, Kantauriko haranetan –ehuneko 24–, Ekialdeko Erdialdean –ehuneko 23– eta Pirinioko haranetan –ehuneko 20–; aitzitik, garrantzi handiagoko

eskualdeetan beherakada gertatu da, Erribera Garaian, kasu –ehuneko 16–, Iruñerrian –ehuneko 10– eta Lizarraldea –ehuneko 12–.

- Per capita zorrik handiena Erriberaren hegoaldean –72.209 pezeta biztanleko–, Pirinioaurreko haranetan –72.735– eta Kantauriko haranetan –65.757 pezeta biztanle bakoitzeko– dago. Zenbatekorik txikiak, berriz, Pirinioko haranetan –33.260 pezeta biztanleko–, Lizarraldea –32.286 pezeta biztanleko– eta Kantauriaurreko haranetan –37.670 pezeta biztanleko–.

VII.3.4. Udal eta kontzejuen zorraren banaketa biztanleria-tarteen arabera

Ondoko taulan jasotzen dira biztanleria-tarteen arabeko udalen eta kontzejuen zor homogeneizatuaren xehekapena eta 1998ko datuekin eginko alderaketa:

| Biztanleria-tarteak | Biztanleria | | Zorra (PTA. milioitan) | | Aldaketa % 98/99 | Per cápita (PTA.) | |
|-------------------------------|-------------|-------------|------------------------|--------|---------------------|-------------------|--------|
| | Udalak 1998 | Udalak 1999 | 1998 | 1999 | | 1998 | 1999 |
| 0-5.000 biztanle | 148.279 | 150.772 | 7.955 | 7.817 | -1,7 | 53.646 | 51.846 |
| 5.000-50.000 biztanle | 133.471 | 136.639 | 6.978 | 6.814 | -2,4 | 52.278 | 49.865 |
| 50.000 biztanle baino gehiago | 179.145 | 180.483 | 8.214 | 7.079 | -13,8 | 45.854 | 39.221 |
| Guztira | 460.895 | 467.894 | 23.147 | 21.709 | -6,2 | 50.221 | 46.398 |

Ikusten den bezala, tarterik txikiak –5.000tik 50.000 biztanle artekoa– hartzen du zenbateko handiena, 51.846 pezeta biztanleko. Gainerakoetan, adierazle horren balioa 49.000 pezetako da

erdiko tartearen kasuan eta 39.000 pezetako biztanlerik gehieneko tartearen kasuan.

HIRUGARREN ZATIA FISKALIZAZIO JARDUKETEN OROIT-IDAZKI TANKERAKO LABURPENA

VIII. FISKALIZAZIO TXOSTENAK

2000an zehar Kontuen Ganbarak eginiko fiskalizazio txostenetatik –ikus txosten honetako II.1.3. atala– “Iritzia” atala hartu eta laburtu dugu, iritsitako ondorio nagusiak aurkezteko asmoz; ondorio horiek, nagusiki, honako hauei buruzkoak dira:

- 1999ko aurrekontuaren likidazioa.
- Ondare-egoera 1999ko abenduaren 31n.
- Legezketasun-printzipioari egokitzea.
- Finantza eta ekonomia egoera 1999ko abenduaren 31n.
- Erakunde autonomoen, enpresen eta fundazioen egoera.
- Ganbera honek eginiko aurreko fiskalizazio txostenetako gomendioen betetze-maila.

Txostenak fiskalizaturiko entitateen biztanleria-tarteren inguruan bildu dira (1999ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera):

VIII.1. 5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO ENTITATEAK

Biztanleria-tarte honetan 13 entitateri buruzko txostenak sartu dira: Beriain, Esa, Noain (Elortzibar) eta Aezkoako Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Aribere, Garaioa, Garralda, Orbaitzeta, Orbara eta Hiriberri, bai eta Aezkoako Batzarra bera ere.

VIII.1.1. 1998ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

Aztertutako entitateek aurkezten duten aurrekontu-likidazioaren egoera-orriak modu egokian agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian eginiko eragiketa-multzoa. Fiskalizaturiko 13 entitateetatik hirutan bakarrik daude salbuespenak, ekitaldi-amaierako eragiketa-mozketa gaizki egin delako; aurrekontu egozpena gaizki egin bada ere ez du funtsean aldatzen udalean eginiko lanaren ekonomia eta finantza alderdiei buruzko informazioa.

VIII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

5.000tik beherako tartean, fiskalizaturiko 13 entitateetatik 13tan agerian geratu da ezinezkoa dela ondare-egoerari buruzko iritzirik ematea, ondare-kontabilitaterik ez dagoelako –zeina, esan bedi bidenabar, ez baita nahitaezkoa, gaur egungo legediaren arabera–, eta udal inbentarioa gaurkotu gabe dagoelako –entitate gehienetan, azken gaurkotzea 1994koa da–. Beste bi udal iritzia ona da, salbuespenekin, ibilgetuaren saldoen egokitzapen faltagatik eta udal inbentarioa gaurkoturik ez egoteagatik.

VIII.1.3. Legezketasuna

Oro har, aztertutako entitateen jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz gauzatu da; dena den, 13 enteetan aurkitu dugu baieztapen orokorra ñabartzen duen salbuespenik, administrazio kontratazioa erregulatzeko duten arauak ez betetzetik edo kontabilitate-aurrekontu alderietatik heldu direnak, idazkariaren kontratu-harremanaren ez betetze formalak eta lege aldetikoak.

VIII.1.4. Finantza-egoera

Fiskalizazio txostenetan aztertutako enteentz finantza egoeraren balorazio edo diagnostikoa egiten da indize, ratio edo zifra adierazgarrienetatik abiaturik (diruzaintzako gerakinak, aurrezki garbia, zorpetze maila eta mugak, epe luzerako zorra, etab.), aurreko ekitaldikoekin alderaturik.

Tarte horretan aztertutako hamahiru enteetatik gehienak egoera onean daude (10 entitate), oso onean (entitate bat), eta bi kasutan diruzaintzako gorabeherak daude eta beste kasu batean onartzeko moduko egoeran.

VIII.1.5. Erakunde autonomoak

Biztanleria tarte horretan fiskalizaturiko entitateetatik kasu bakar batean daude udalaren mendeko erakunde autonomoak: musika eskola eta kultur patronatua. Aztertutako aurrekontu-likidazioek nahiko ongi agertzen dute eginiko jardura.

Dena den, txostenaren mamian, musika eskolaren kasuan gomendioa da ondasunen inbentarioa egitea eta ordaintzeko dauden tasak kobratzea udalerako ezarritako prozedura orokorrak erabiliz. Kultur patronatuaren kasuan, hauxe da gomendioa: udalak patronatuaren kontu-hartzea eta kontrola bete behar du; kultur jarduerak egiteko laguntza teknikoaren kontratuen adjudikazioan legezketasuna betetzea, obra kontratuetan beharrezko formal batzuk betetzea, dirulaguntzetarako urteko deialdia eta horiek banatzeko irizpideak

argitaratzea eta patronatuaren ondasunen inbentarioa egitea.

VIII.1.6. Aurreko fiskalizazio txostenetan emandako gomendioen betetze mailaren jarraipena

5.000 biztanletik beherako entitateei buruzko txostenetan ez dago iruzkinik aurreko gomendioen betetzeari buruz, bistan denez, lehenago ez delako ente horien fiskalizazio txostenik egin.

VIII.2. 5.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO ENTITATEAK

Bederatzi entitateen txostenak daude sarturik: Tafalla, Lizarra, Barañain, Berriozar, Tuter, Iruña, San Adrián, Aurrerabi eta Burlatako udalak.

Zehaztu beharra dago gehienak urtero auditatzen direla eta, beraz, 2000ko ekitaldiko auditoretzak aurreko argitaratu dira.

VIII.2.1. 1998ko aurrekontuaren garapena eta betetzea

Fiskalizaturiko bederatzi udalengan, ekitaldian zehar eginiko eragiketa-multzoa alderdi muntadun guztietan agertzen du aurrekontu-likidazioak; hala ere, salbuespenak daude hiru entitatetan, okerreko aurrekontu-egozpen batzuen ondorioz eta aurrekontualdiaren amaierako eragiketa-moketa gaizki egiteagatik.

VIII.2.2. Ondare-egoeraren agerpena

Egoera balantzek nahiko ongi adierazten du zein den ondare egoera fiskalizaturiko bederatzi entitateetatik zortzitan. Kasu bakar batean ez da iritzirik eman (ibilgetuaren, zordunen, diruzaintzaren eta aurrerakinen arloetan ez dagoelako barne kontabilitate egokirik). Nolanahi ere, aldeko iritzia lortu duten entitate guztiek badituzte salbuespenak, oro har, ibilgetuaren saldoen egokitzapen edo fidagarritasun faltagatik edo udal inbentarioa gaurkoturik ez egoteagatik.

Oro har, hobekuntza antzematen da aurreko ekitaldiarekin alderaturik, orduan ez baitzen iritzirik eman tarte honetako udalen zazpi txostenetatik bostetan.

VIII.2.3. Legezketasuna

Oro har, jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz egin da. Fiskalizaturiko bederatzi udalengatik oso iritzi garbia jaso du arlo honetan eta beste batek, ordea, kontrakoa, ez baitu betetzen kontabilitate eta aurrekontuetako araudia ez eta kontratazioari buruzko araudiaren zenbait alderdi. Gainerako txostenen salbuespenak, gehien bat, ez betetze batzuei –kasu batzuetan formalak– zor zaie, kontratazioaren arloko araudiarenak (zazpi udal), aurrekontu-kontabilitatearen arloko araudiarenak (bi udal) eta langilearen arlokoak (udal bat).

VIII.2.4. Finantza-egoera

Aztertutako udalek 1999ko abenduaren 31n agertzen duten finantza-egoera onargarria da oro har: diruzaintzako gerakinak positiboak dira, aurrezki garbiaren ehunekoak azpimarragarria da, eta, zorpetze-mailari dagokionez, mugaren edo ahalmenaren azpitik dago. Oro har, esan daiteke egoera ona dela lau entitatetan, bilakera positiboa izan dela hiru entitatetan eta bi udal dira ondorio horren salbuespena.

Oro har, adierazle ekonomikoek lehenagoko ekitaldietan izandako balioekiko bilakaera positiboa izan dutela ikusten da.

VIII.2.5. Erakunde autonomoak edo patronatuak eta enpresak

Fiskalizaturiko Udalek dauzkaten 24 erakunde autonomoak (patronatuak gehien bat) aztertu ditugu (Fiskalizazio txostenei buruzko II.1.3 epigrafea). Horietatik 18k beren aurrekontu eta kontuak dituzte, eta gainerako seiak zein bere udaleko aurrekontuko kontusailetan txertaturiko kontuak dituzte.

Kontuak dituzten hemezortzi erakunde autonomo fiskalizatuaren gastuen aurrekontuaren betetzeak 2.805 milioi pezeta egiten du.

Oro har, aurrekontu-likidazioek nahiko ongi agertzen dute eginiko jarduera. Dena den, honako hauek aurkitu ditugu:

- la erakunde autonomo guztietan, eragiketarako udaleko kontu-hartzailatza publikoak kontrolatu gabek dira.

- Egoera-balantzea, halakorik dagoenean, sistemak ematen duen eta fidagarritasun eskasa duen dokumentu bat da.

- Azterturiko erakunderik gehienetan, indarreko araudiaren urrapenak agertzen dira, batez ere aurrekontuen eta kontabilitatearen arloan eta administrazio kontratazioarenean.

- Zenbait kasutan, kudeaketan autonomiaz jarduteko ahalmen apala edo ia ezereza eta, beraz, fiskalizazio txostenetan behin eta berriz agertzen dira patronatu horiei ematen zaizkien eginkizunak argi zehazteko, egiazko autonomia maila zeahzteko eta udalak patronatuaren jardueraren gainean egin beharreko esku-hartze eta tutoretza tresnak finkatzeko gomendioak, baita batzuetan aztertu ere komeni den patronaturik izatea edo haren jarduerak kudeatzea udaletik bertatik edo udal zerbitzu deszentralizatu bihurtuta.

VIII.2.6. Aurreko fiskalizazio txostenetan egindako gomendioen betetze-mailaren jarraipena.

Atal honi dagokiona, ganbera honek hurrengo urteaz, 2000az alegia, berriki eginiko auditorietan dago adierazirik.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1.1. Eranskina. Udal eta Kontzejuetako 1999 aurrekontuaren likidazioa, populazio-tarteka (5.000 biztanle baino gutxiagokoak)

Dirusarrerren betetze maila (pezetak, milakotan)

(1. tartea. Udalak eta bere erakunde autonomoak barne)

| | Kap. | Aitorturiko eskubideak | Egitura (ehunekotan) | Kobratua | Kobrانتzen ehunekoa | Kobrانتzeke |
|----------------------------------|------|------------------------|----------------------|-------------------|---------------------|------------------|
| Zuzeneko zergak | 1 | 4.654.903 | 14 | 4.235.316 | 91 | 419.587 |
| Zeharkako zergak | 2 | 1.983.455 | 6 | 1.711.632 | 86 | 271.823 |
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 3 | 2.742.259 | 8 | 2.524.153 | 92 | 218.105 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 7.790.238 | 24 | 7.541.524 | 97 | 248.714 |
| Ondare dirusarrerak | 5 | 3.161.229 | 10 | 2.532.558 | 80 | 628.671 |
| Inbertsio errealen besterentzea | 6 | 1.476.574 | 5 | 1.233.544 | 84 | 243.030 |
| Kapital transferentziak | 7 | 8.720.675 | 27 | 6.242.228 | 72 | 2.478.447 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 8 | 183.559 | 1 | 181.996 | 99 | 1.563 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 9 | 1.950.034 | 6 | 1.814.439 | 93 | 135.595 |
| Dirusarrerak, guztira | | 32.662.927 | 100 | 28.017.390 | 86 | 4.645.537 |

Gastuen betetze maila (pezetak, milakotan)

| | Kap. | Aitorturiko betebeharrak | Egitura (ehunekotan) | Ordaindua | Ordaintzen ehunekoa | Ordaintzeke |
|------------------------------------|------|--------------------------|----------------------|-------------------|---------------------|------------------|
| Langileen ordainsariak | 1 | 5.555.961 | 18 | 5.490.135 | 99 | 65.826 |
| Ondasun arruntak eta zerb. erostea | 2 | 6.323.050 | 21 | 5.864.534 | 93 | 458.517 |
| Interesak | 3 | 339.575 | 1 | 327.585 | 96 | 11.990 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 1.674.195 | 5 | 1.516.187 | 91 | 158.008 |
| Inbertsio errealak | 6 | 15.103.486 | 49 | 12.131.121 | 80 | 2.972.365 |
| Kapital transferentziak | 7 | 417.947 | 1 | 386.247 | 92 | 31.700 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 8 | 102.825 | 0 | 98.825 | 96 | 4.000 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 9 | 1.160.322 | 4 | 1.092.634 | 94 | 67.687 |
| Gastuak, guztira | | 30.677.361 | 100 | 26.907.270 | 88 | 3.770.091 |

1.2. Eranskina. Udal eta Kontzejuetako 1999 aurrekontuaren likidazioa, populazio-tarteka (5.000 biztanle baino gutxiagokoak) (5.001etik 50.000 biztanlera artekoak)

Dirusarrerren betetze maila (pezetak, milakotan)

| | Kap. | Aitorturiko eskubideak | Egitura (ehunekotan) | Kobratua | Kobrantzen ehunekoa | Kobratzeke |
|----------------------------------|------|------------------------|----------------------|------------|---------------------|------------|
| Zuzeneko zergak | 1 | 3.504.896 | 18 | 2.691.240 | 77 | 813.656 |
| Zeharkako zergak | 2 | 1.204.970 | 6 | 1.043.125 | 87 | 161.845 |
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 3 | 2.553.167 | 13 | 2.208.570 | 87 | 344.598 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 7.223.185 | 38 | 6.919.875 | 96 | 303.310 |
| Ondare dirusarrerak | 5 | 424.221 | 2 | 371.194 | 88 | 53.027 |
| Inbertsio errealen besterentzea | 6 | 349.317 | 2 | 264.772 | 76 | 84.544 |
| Kapital transferentziak | 7 | 3.422.909 | 18 | 2.315.462 | 68 | 1.107.447 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 8 | 12.050 | 0 | 10.184 | 85 | 1.865 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 9 | 366.842 | 2 | 366.842 | 100 | 0 |
| Dirusarrerak, guztira | | 19.061.556 | 100 | 16.191.264 | 85 | 2.870.292 |

Gastuen betetze maila (pezetak, milakotan)

| | Kap. | Aitorturiko betebeharrak | Egitura (ehunekotan) | Ordaindua | Ordainketen ehunekoa | Ordaintzeke |
|------------------------------------|------|--------------------------|----------------------|------------|----------------------|-------------|
| Langileen ordainsariak | 1 | 6.429.733 | 37 | 6.338.814 | 99 | 90.919 |
| Zerb. eta ondasun arruntak erostea | 2 | 3.831.023 | 22 | 3.249.625 | 85 | 581.398 |
| Interesak | 3 | 280.355 | 2 | 272.562 | 97 | 7.793 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 1.105.049 | 6 | 936.685 | 85 | 168.365 |
| Inbertsio errealak | 6 | 4.922.133 | 29 | 3.761.822 | 76 | 1.160.310 |
| Kapital transferentziak | 7 | 70.821 | 0 | 52.219 | 74 | 18.602 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 8 | 5.707 | 0 | 5.707 | 100 | 0 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 9 | 580.413 | 3 | 574.551 | 99 | 5.862 |
| Gastuak, guztira | | 17.225.235 | 100 | 15.191.985 | 88 | 2.033.250 |

Oharra: 2. tarte honetan Tuter, Burlata, Barañain eta Lizarrako erakunde autonomoen datuak sartu ditugu. Toki administrazioan haiei buruzko daturik ez badago ere, haien aurrekontuen likidazioa auditoretzako txostenen bitartez ezagutzen ditugu.

1.3. Eranskina. Udal eta Kontzejuetako 1999 aurrekontuaren likidazioa, populazio-tarteka (50.000 biztanle baino gehiagokoak)

Dirusarreraren betetze maila (pezetak, milakotan)

| | Kap. | Aitorturiko eskubideak | Egitura (ehunekotan) | Kobratua | Kobrانتzen ehunekoa | Kobratzeke |
|----------------------------------|------|------------------------|----------------------|-------------------|---------------------|------------------|
| Zuzeneko zergak | 1 | 5.476.944 | 26 | 4.969.634 | 91 | 507.310 |
| Zeharkako zergak | 2 | 594.000 | 3 | 525.144 | 88 | 68.856 |
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 3 | 2.866.502 | 13 | 2.609.709 | 9 | 256.793 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 10.114.770 | 47 | 9.574.976 | 95 | 539.794 |
| Ondare dirusarrerak | 5 | 353.391 | 2 | 351.097 | 99 | 2.293 |
| Inbertsio errealen besterentzea | 6 | 309.734 | 1 | 309.734 | 100 | 0 |
| Kapital transferentziak | 7 | 1.515.228 | 7 | 1.206.357 | 80 | 308.871 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 8 | 198.745 | 1 | 142.421 | 72 | 56.324 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 9 | 0 | 0 | 0 | | 0 |
| Dirusarrerak, guztira | | 21.429.313 | 100 | 19.689.072 | 92 | 1.740.241 |

Gastuen betetze maila (pezetak, milakotan)

| | Kap. | Aitorturiko betebeharrak | Egitura (ehunekotan) | Ordaindua | Ordaintzen ehunekoa | Ordaintzeke |
|------------------------------------|------|--------------------------|----------------------|-------------------|---------------------|------------------|
| Langileen ordainsariak | 1 | 8.619.293 | 39 | 8.580.559 | 100 | 38.733 |
| Ondasun arruntak eta zerb. erostea | 2 | 5.676.370 | 26 | 4.486.326 | 79 | 1.190.044 |
| Interesak | 3 | 219.613 | 1 | 179.588 | 82 | 40.025 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 1.440.961 | 7 | 1.160.256 | 81 | 280.706 |
| Inbertsio errealak | 6 | 3.977.361 | 18 | 3.668.127 | 92 | 309.234 |
| Kapital transferentziak | 7 | 592.482 | 3 | 268.738 | 45 | 323.744 |
| Finantza-aktiboen aldaketa | 8 | 196.973 | 1 | 196.973 | 100 | 0 |
| Finantza-pasiboen aldaketa | 9 | 1.135.668 | 5 | 1.135.199 | 100 | 469 |
| Gastuak, guztira | | 21.858.721 | 100 | 19.675.767 | 90 | 2.182.954 |

2. eranskina. 500 eta 1.000 biztanleen arteko entitateen zerrenda.

| Udala/Kontzejua | Biztanleak | Igantzioko Udala | |
|-----------------|------------|-------------------------|--------|
| Abartzuza | 517 | Izaba | 592 |
| Oibar | 928 | Iza | 532 |
| Allin | 819 | Mélida | 632 |
| Ameskoabarren | 827 | Mendigorria | 821 |
| Araitz | 606 | Miranda-Arga | 886 |
| Arakil | 872 | Murillo el Cuende | 428 |
| Arantza | 699 | Obanos | 659 |
| Arbizu | 925 | Otsagabia | 790 |
| Aiegi | 832 | Oteiza | 681 |
| Basaburua | 742 | Pitillas | 916 |
| Berbintzana | 737 | Sunbilla | 575 |
| Bertizarana | 651 | Tiebas-Muru Artederreta | 709 |
| Deikaztelu | 703 | Uharte Arakil | 582 |
| Erro | 799 | Urdiain | 780 |
| Etxalar | 785 | Villatuerta | 651 |
| Fontellas | 646 | Arrada | 767 |
| Goizueta | 913 | Guztira | 512 |
| | | | 24.514 |

3. Eranskina. Toki Administrazioiko Departamentuari 1999ko urteko kontuak aurkeztu ez dizkio-ten toki entitateen zerrenda.

a) Udalak:

| Entitatearen izena | Zentsua, 1999-01-01n | | |
|--------------------|----------------------|-----------------------|--------|
| Aras (1) | 226 | Mañeru (1) | 354 |
| Artazu | 80 | Murillo el Fruto (1) | 755 |
| Atetz | 214 | Oltza (1) | 1.328 |
| Basaburua (1) | 697 | Petilla de Aragón (1) | 48 |
| Biurrun-Olkotz (1) | 179 | Erromantzatua | 167 |
| Castejón (1) | 3.149 | San Adrián (1) | 5.392 |
| Ezporogi | 64 | Sunbilla (1) | 677 |
| Girgillao | 72 | Tirapu | 65 |
| Izaba | 533 | Uxue | 242 |
| Itza (1) | 667 | Deierrri (1) | 1.229 |
| Xabier | 130 | Irurtzun (1) | 2.019 |
| Lapoblación | 187 | Lekunberri (1) | 834 |
| | | Guztira | 19.308 |

(1) 14 udal hauek behin-behineko txostenaren fasean eta 01-11-19a baino lehenago aurkeztu dizkio-ten kontuak Toki Administrazioiko Departamentuari.

b) Mankomunitateak/batasunak:

| Entitatearen izena | |
|---|--|
| Errege Bardea ⁽¹⁾ | Cintruénigo-Fitero H. M. ⁽¹⁾ |
| Ameskoako L. | Cárcar-San Adrián-Andosilla eta Azagra H. M. |
| Aezkoa (Ibarra) | Uharteko H. M. |
| Erronkaribar | Izaga H. M. |
| Zaraitzu (Ibarra) | Buñuel aldeko H. M. ⁽¹⁾ |
| Lokizko Batzordea | Ultzama aldeko H. M. ⁽¹⁾ |
| Erregerena M. | Los Arcos aldeko H. M. |
| Aralarko Batasuna | Altsasu-Olazti eta Ziordiko H. M. ⁽¹⁾ |
| Kokoriko M. ⁽¹⁾ | Erriberri aldeko H. M. ⁽¹⁾ |
| Linares Ibako ur mankomunitatea | Urraul eta Longidako elektrifikazio M. |
| Aragón Ibarreko hondakinen M. | Beire Pitillas Langileen M. ⁽¹⁾ |
| Arga-Valdizarbe zerbitzu M. ⁽¹⁾ | Ezkabarte-Olaibarko Langileen M. |
| Izenik gabe ⁽¹⁾ | Betolegi-Erremendia elektrifikazio M. ⁽¹⁾ |
| Antsoain-Berriobeiti eta Berriozarreko H. M. ⁽¹⁾ | Uharte, Egues eta Esteribarko Euskara M. |
| Zarrakastelu aldeko H.M. ⁽¹⁾ | Doneztebeko Eskualdeko Ind. M ⁽¹⁾ |
| Antzin-Ameskoa aldeko H.M. ⁽¹⁾ | Irunberriko G.Z.M. |
| Auñamendi H.M. | Nafarroako Iparraldeko Euskara M. |
| Bortziriak H. M. ⁽¹⁾ | Erdialdeko M. |

(1) Erakunde hauek behin-behineko txostenaren fasean eta 01-11-19a baino lehenago aurkeztu dizkiote kontuak Toki Administrazioako Departamentuari.

4. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$